TTiPi-TTAPA

BAZTAN - BIDASOA - MALDA ERREKAKO ALDIZKARIA

1985'ko Urria 13. zenb.

ASTOA

Matiasek badu astoa. Izena du kamello eta aurten egin beharr du kume bat.
Eldueder urteak asto horren gainean asto karreran ibilliko naiz ni.
Idabaziko dugu kopa, astoek eta nik.

GUSTAVO AZCARATE
8 URTE

GARZAIN

NON-ZER


BERRIAK
2. BOSTA HERRI
6. BIDASOA IBAIA/ERRIA
7. NAIZA ERRIA
10. BAZTAN
11. BERTIZARANA
12. AEK
GAIAK
13. BERA TUSKFINDUKA
15. NEW YORK-TIK
16. ALA LANGITZ

ARANTZA

LEHORTE LARRIA. Beste leku askotan bezalaxe, lehorte izugarria jasaten ari gara Arantzan ere. Nekazariek benetan kezkaturik daude, ondorio latzak erakar bait ditzake beraien ekonomiarentzako. Oraindik udan gaudela, ia hasiak dira negurako bildutako belarrez mantentzen eta martxa honetan, jakina neguan zer emanik ez. Bestaslde, oraindik mendietan dauden animaliak, ardi eta behorrak, une beltzak pasatzen ari bide dira. Ohizko parajetik kanpo bait daude gehientsuenak, goi-mendiko iturri eta errekatxoak agorturik daude eta. Lekuko zaharrenak diotenez, inoiz ezagututariko idortirik handienetarikoa bide da, zeren uda bihotzean honelako zerbait gertatzea ulergarria bada, Iraila eta Urrian ez da sarritan gertatzen. Dena dela, agian oraindik okerrena gertatzekoa dago, ene auzokide adintu batek dioenez, onaren ondotik txarra omen dator eta hainbat eguraldi eguzkitsu izan dugunez, ia negu garaian elur eta izotzak biztanle bezala ametitu behar izaten ditugun.

EUSKARAZ ALFABETATZEKO AUKERA. Alfabetatze euskalduntze koordinakundea(AEK) iritsi zaigu Arantzaraino alajaina. Bai, ikusten dut nik dakidan batzuk jarriko duten aurpegia honelakorik entzutean «gure denbora guztian euskaraz eta orain ikasten hasi beharra bakarrik geratzen zaiguk» pentsatzen dutela. Baina ea, gauzak ez dira horrela. Hizketan jakin arren, eta zorionez gure herrian badakigu, leitzeko eta idazteko orduan gehienok ez gara gauza. Izan ere, ez al da tamalgarria gure amaren hizkuntzan gure hizkuntza nazionalean askutiz ximel bat idazteko gaitasunik ez izatea? Anima gaitezen bada, eta has gaitezen euskaraz idazteko eta irakurtzeko trebetzen, iragan baitira seme-alabak ikastoletara bidaliz gure kontzientzia lasaitzen genuen garai haiek.

EHIZA DENBORALDIA. Bai, berriz ere gure mendietako lasaitasuna apurtu da ehiztarien tiro eta hotsa dela medio. Gorriak ikusteko daude egazti gizarajoak! Garaitxo batean ez dugu iratzargailuaren beharrik izanen, goizetan esnatzeko, argi printzerekin batera, egazkiak egan hasten diren bezain laister, tiro hotsez loa apurtuko baitute, hildakoen pakea ere arriskutan jarriz. Seguraski gure hemengo eskakizuneri ahuntzaren gauerdiko eztulari baino kasu gehiagorik ez diote eginen, baina halere isilik ez genuke geratu nahi. Gure nahia ehiza galerazia izatea litzateke, baina egun behintzat hori ezinezkoa denez, hauxe da gure erregua: Legeak zaintzen dituen egaztiak behintzat ez ditzatela hil, jakin baitakigu horrelakoak gerta ohi direla urtero, galeraziak dauden edozein egazki motari erasotzen baitiote gogotsuen kabrinoek direla lekuko.

ARANTZAN, IKASTOLA ETA ESKOLA PUBLIKOA ELKARTU. Aintzineko kurtsoaren bukaeran ikastolan haur gutti zirela eta, gurasoak elkartu ziren eta batasunaren erabakia hartu zuten. Udal ordezkaritza joan zen "Ministeriora" eta han dena oso erraza izan zen. Aurten zazpigarren kurtsoa bertan emanen da, heldu den urtean zortzigarrena emateko asmoekin.

PAGOTXA URTE APARTA. Bai txar guztiak ez omen datoz batera eta aurten ere zerbait ona behar zenez, hona bada: Pagotxa ugari. Esaera zahar batek dioenez, «lehorte, gaztain urte; lehorte urren urte, pagotxa urte» eta iragan bi urteak idor xamarrak joanak direnez aurten lehertu. Dena dela, sarritan gerta bide da udaberrian izugarrizko itxura pagoak eta udazkenera iristerakoan inondik fruiturik ez, baina aurten gai horietan jakitunek diotenez ez omen dago horrelako arriskurik. Zelako besta gure mendietako basurdeak! Beno, geratzen badira behintzat, horiek ere lehen artzerekin gertatzen zen bezala, desagertzeko zorian bait daude.

BERA

IKASLE ETA IRAKASLE BERTSOTAN IKASTEN. Diputazioak ordainduta bertsolari liberatua dugu Lorenzo Aburuza. Eguberriak arte Bortz Herrietan txandatuz ikastola eta eskoletan bertsotan irakasten ari da. Lan ederra egiten ari da, irakasleak haurrei irakasteko ari bait da.

HASI DA BERRIRO ERE "GURE". Berrogeita hamar gazte baino gehiago, entrenamenduetan biltzen dire. Gipuzkoako Federazioan, futboleko hiru ekipo osatzen dituzte, aurten nahiko ongi hasi direlarik. Gure Txokoa elkartearen bertze antolaketak ez murrizteko, autofinantziazioa dute beren helburu iaz bezala txartelak salduz.

KORRIKALARIEN BERRI. Juan Manuel Irazoki, Santiago Irazoki, Xabier Eltzaurdia eta Jose Antonio Garbisu ditugu Berako ekipoa osatzen dutenak. Hagitz ongi aritu dire joan den uda honetan izandako txapelketetan, Saran, Askainen, Ezpeletan. Aipatzekoa da Juan Manuel, Ezpeletan txapeldun atera zela.

LANPOSTU BERRIAK EGITEKO LAGUNTZAK. Estaduak 700.000 pezta, ematen dituela, lanpostu finko bakoitzagatik, udalak eskatuta ordezkari bat bidali du, eta Berako lantegietan ibili da ondorio onekin dirudienez.

«CONTROL VOLANTE». Batez ere dibisen kontrabandorako, oraindik aintzinera mugatik hogei kilometroko inguru bateraino «Control» edo «Aduana» gisako bat noiz nahi aurki dezakegu.

ESKOLAK HASI DIRE. Berrehun eta hogeita hamar ikasle «Rikardo Baroja» ikastetxean eta berrehun eta berrogeita hiru ikastolan. Aipatzekoa da kontzentrazioan berrogeita hamahiru haur euskaraz ari direla eskolaurre eta lehen mailetan. Eta adina berekoak gaztelaniaz ikasten ari direnak ere baldin badire, euskaraz ari direnak ehuneko berrogeita hamasei dire.

GAZTE KULTUR EGUNAK Beran eta gazteak antolaturik «Gazte Kultur Egunak».

Hara hemen egun horietako egitamua:

Urriaren 25ean, ostirala, arratsaldeko 9tan: «HERRI AFARIA» eta ondoren dantzaldia.

26ean, larunbata, gaueko 11tan: «ROCK JAIALDIA», SKOGS BOIS, JOTA KIA eta ITOIZ taldeekin.

27an,igandea, arratsaldean: Gaztain jatea, sagardoa, taloa eta trikitixak.

28-29 eta 30ean, arratsaldeko 8,30tan: ZINE EMANALDIA, «El gran dictador»,«Mosku no cree en lagrimas» eta «Fuego eternno».

Azaroaren 1., ostirala, goizeko 8,30tan, Altzateko plazan hasiko «Mendiko

JOAN DEN ABUZTUAREN 10EAN, gurasoen elkarteak dei eginta, Berako, RIKARDO BAROJA, Eskola Publikoko Kontseilu Buruak bilera bat ospatu zuen.

Bilera honetan eztabaidatu zen puntu bakarra «MEC»eko Herrialdeko Buruzagiek hartutako erabakia izan zen.

Erakunde honek, Berako zentroa kontutan hartu gabe, lehen zeuden lau irakasle elebidun kendu eta bi berri, bat elebiduna eta bestea erdalduna jartzea hain zuzen ere.

Guraso elkarteak berriz, erabaki hauek hartu zituen

-Zentru honetara heldu diren irakasle guztiak elebidunak izan behar dutela.

-Lehen zeuden irakasle kopurua mantentzea, orain dauden pertsona berarekin.

-«MEC»ak proposatzen dituen irakasleekin, euskarazko ikastorduak ez direla osatzen, nahiz eta elebidun linea hasi zenean ordu hauek betetzeko euskaldun irakasle kopurua garantizatu izan.

-Ministeritza, eskola publikoaren aurka ari ote den ikusten du Elkarte honek, zeren gurasoek formalitate gutti ikusten dute eskola honetan, gora-behera handiak izaten bait dira urte batetik bestea eta jokaera honekin eskola pribatuari arrazoia ematen zaio.

Ikusten denez Ministeritzak gurasoen elkarteak egindako zenbait eskakizun onartu ditu. Kendu nahi zituen lau irakasle elebidunak hemen gelditu dira eta kopuru guztitik bat kendu dute eta hau erdalduna.

IPARRALDETIK 23

AHUNTZ, harrapatu dituzte Berako mendizainek. «Montero»ri saldu zaizkio eta dirua Herriko Etxearentzat izanen da.

8. MAILA EGINDA LEHEN TALDEA ATERA DA IKASTOLATIK. 17 lagun denetara, hauetatik sei euskaraz jarraituko dituzte beren ikasketak: Marta Irazoki, Txaro Zubieta, Ainhoa Senper, Maite Elgorriaga, Inazio Xabier Valverde eta Fernando Apeztegia, Irunen eta Donostian. Bertzeak: Antton Lasarte, Mikel Elizondo, Juan Inazio Burgete, Iñaki Iriarte, Idoia Jorajuria, Emi Lopez, eta Jesus Mari Goia, Berako eta Mugaireko Lanbide eskoletan edo institutoetan gaztelaniaz ikasten ari dire.

Datorren urterako Mugairen ikasketak euskaraz jarraitzea posible izanen den, Berako guraso batzu Felones jauna, diputazioko Heziketarako diputatuarekin mintzatu dire. Diputatuak espentza gutti eman die. Gurasoek euskararen alde berriro ere borroka egin beharko dutela ikusi dute, oharturikan ia heldu den urtetik hasita eta aintzinera, ikasketak, euskaraz jarraitu nahi dutenak, Doneztebe, Lesaka eta Beratik gazte multzo izanen dela.

MUSIKA ESKOLA. Hirutan hogei haur musika ikasteko lehen proba egin dute; piano ikasten hamabost gaztetxo badaude. Indarrean doa musikaren zaletasuna, bai Donezteben, baita Lesakan ere horretarako eskolak badituztelarik. Begoña Rudi Berako irakaslea dugu eta berak erraten digunez subentzioak baldin badire, baita bertze musikagailu ikastea izanen zen oraingo helburua. Urte saila bada ari direla eta ia pianozko ikasleak badire lehen lan gogorra izan zena, musika, orain gozamena bezala bizitzen dutenek. Dudarik eztena lehen emaitzak dire hauek.

LANGABETUENTZAT IKASTAROAK. z eta TT.TT.ren ale hau ateri orduko, izena emateko epea bukatua izan, horrelako ikastaro gehiago antolatzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak, Europako Elkartearen dirulaguntza espero delarik baita. Ikastaroa dohainik izanen da. Hogei eta hogeita bortz urte arteraino dutenek eguneko bortzehun pezetako beka hartuko dute, eta hogeita bortz urte beteta dutenek, hilabetean 27.000 pezta gutti gora behera izanen dute dirulaguntza. Hauen berri gehiago jakin nahi dutenek Lanbide eskoletan eta INEM bulegoetan aurkituko dute.

E.P.A. AURTEN ERE. Baztan-Bidasoa, Malda Erreka guztian antolatu dire ikastaroak: Informatika, Irudigintza-pintura, Gimnasia, Ingelesa, Haurren Sikologia, Sukaldaritza, Ebaketa eta Jantzigintza, Soldaketa eta Galdaragintza, Eskulanak, Automobilen Mekanika, etabar...

Aipagarria da Informatika, Gimnasia eta Ebaketa-Jantzigintza direla arrakasta handiena dutenak. Nahiz eta urriatik abendurako diputazioaren kontura aurrekontua lau milioiekoa izan, matrikulak ordaindu behar dire, Informatika 50 pezta eta bertzeak 20 pezta orduko. Euskarazko ikastaroak aurten AEKk hartu ditu. Azaroan Nekazari ikastaroa egiteko asmoa bada.

ETXALAR

GAU PASA ETA USATEGIETAKO IGANDEA.

Hilabete honen 19an, Usategietako Igande bezperan, gau pasa izan zen Ekaitz Taldearekin, Herriko Gazte taldeak antolatuta.

Biharamonean berriz, urtero egiten den bezala aurten ere, Usategietako Igandea ospatu zen. Beraz, egun aproposa Usategietako mendi tontorretik bueltatxo bat emateko eta aldi berean naturaren edertasunak ikusteko eta dastazeko izan genuen. Lapurdiko zelaiak so egoteko, okasio berezia, Saratik hasi eta Donibane Lohitzune arte eta han urrunean, itsasoaren urdin kolorea ere ikus daiteke.

Bitartean Herriko Plazan, zenbait ekitaldi izan ziren. Bertsolari, trikitilari e.a., eta arratsaldean urtero egiten den bezala, 12 usoen zozketa ikastolak antolatuta. Horrez gain, ostatu bat ere jarri zuten urteko aurrekontuari laguntza bat emateko, Nafarroan oraindik, euskarazko irakaskuntza laguntza «berezi» hauen beharrean aurkitzen denez.

Beraz, ikastola eta HERRIKO EUSKAL KULTURAREN EGUNA bilakatzen ari da urtez urte egun hau.



LESAKA

-ZORKONTUEN BAIEZPENA ETA ORDAINKETAK. Bukatu ziren pilotalekuan aldagelak egiteko lanak, eta horien balioa gutxi gora behera 750.000 pezetakoa izan da.

-Bestalde Euskal Telebista eta bigarren katea ikus ahal izateko jarri zen errepikagailuaren balioa eta hori ezartzeko lanak 204.781 pezetakoa izan dira.

-ZABORTEGIA. Handituz joan da azken bolada honetan Lesakako zabortegia eta ustekabean ere lur sail partikular bateraino hedatu da.

Honi buruz eztabaida batzuk izan ondoren, azkenik lur zati horren jabeari arrazoia eman zaio, baita ere hondamenengatik eskatzen zuena aintzat hartu.

Dena dela zabortegia, lehenbaitlehen hesiz inguratzeko premia ikusten da, hortik bait dabiltza zenbait abere. Hau aspaldian albaiteroak salatutako gauza delarik.

-HERRIKO ETXEKO BERRITZE LANAK. Lan hauen bigarren zatiarekin hasteko asmoz dabil udal hau. Berrikuntza hau 25.000.000 pzta. kostako dela ikusirik, kopuru horretaz kredito bat antolatzea erabakitzen da «Banco de Credito Local»ekin. Alkatea arduratuko da behar izan diren gestioak egiteko.

-ATXILOKETARI BURUZ. Abuztuaren zortzian, goizeko hirutan, goardiazibilak, bere etxean zelarik, detenitu zuten Alejandro Ordoki Arrieta, lesakarra, lege antiterroristaren menpean jarriz. Ber etxea eta gurasoena erregistratu ondoren (deus aurkitu gabe) Iruñera eraman zuten esposaturik. Handik berriz Madrilera, non libre utzi zuten hurrengo egunean.

Hau dela eta Lesakako Udalak erabaki hauek hartu ditu:

-Udalak bere poz handia adierazten du Alejandro libre dagoela jakinez, eta gertaera hau salatzen du, hain baita kaltegarria herriaren elkarbizitzarako.

-Atxilotu eta izan dituen kalte ekonomikoak, udalak ordaintzeko konpromezua hartu du.

-Lege antiterrorista deuseztatzea eskatzen du. Honetaz baliatzen bait dira inongo oinarrizko eskubiderik gabe uzteko atxilotua dagoenari, eta denok dakigu nolako ondorio negargarriak izaten diren gero.

-Heritarrei dei egiten zaie, goardizibilek eragin ondoren, edozein gertakari edo kalteak izaten badituzte, udal honetan salatzea.

-Akordio hau bidali Iruñeko «Gobierno Civil» eta goardizibilen

LESAKAKO UDALAREN BERRIAK

-URAREN TARIFAZ. Herria uraz hornitzeko zerbitzua, udalaren eskutan gelditu zen urte hasieratik, hori dela eta prezio hauek jartzea erabaki dituzte. Zazpi pezetatan industrigintzarako eta bost pezetatan etxeetan erabiltzen dena. Prezio hau «metro cubico» edo mila litrotarako, alegia. Urte batez berrehun mila metro kubiko kontsumitzen dira, gehiena edo erditik goiti etxeetan. Egunero zazpi kilo kloro nahastu behar izaten zaio urari, eta lan hori egiteko tresna aproposa bat ezarri zuten.

-ORDAINTZEA AHAZTU. Herritar zenbait udalari zor dioten zergak eta beste kontuak, gogoz edo borondatez ordaintzeko epea bukatu egin zen. Hemendik aurrera bide ejekutibotik saiatuko dira diru hori eskuratzen. 1984. urteari dagokion diru kopuru hori 1.863.236 pezetatakoa da.



-DOMIKOKO PRESAN, ur ihespideak direla eta Irungo Udalak konponketa hauek egiteko asmoz proiektu bat aurkeztu du.

14 milioi kostako dira lan horiek, eta obrak aurrera egiteko trabarik ez du jarri Lesakako udalak. Erran behar da Lesakako menditan kokatzen dela aipatutako presa eta Irundarrentzat dela hor biltzen den ura.

-DIRULAGUNTZAK. Leskako musika bandari 300.000 pzta. urte honetarako laguntza eman zaio, eta horretik aparte, joan zen urtean eta aintzinekoan agindu bai, baina materializatu ez zuten subentzioneak (284.650 pzta.) denak batean ematea erabaki dute.

-Beti Gazte elkarteak ere, 350.000 pzta. jaso ditu aurtengo laguntza bezala.

-Azkenik «Arkupe» izeneko pelotazale elkarteak aurkeztu zuen proposamenari amore emanez, 250.000 peztekin lagundu zaio beren diru irterak nolabait gutxitzeko.

-AHUNTZAK. Oihartzungo Udalak bidalitako txostenari buruz erabaki hauek onartu dira:

-Oihartzungo mendi-zaintzaleei, baimena ematen zaie ahuntzak harrapatzeko Lesakako menditan.

-Akordio honen berri Oihartzuarrei bidaltzea.

BIDASOA IBAIA

Diputazioak aginduta, Bidasoa ibaia dragatzen ari dira. Dragatuak egitea ibaiari bazterrak larrugorrian uztea besterik ez da, soila uztea hain zuzen ere. Lan honekin mementuko egoera konpondu nahi da baina horrela diru asko gastatuz. Dragatzea, alperrikako lana bihurtzen da, hemendik 4 edo 5 urtetara berriro egin beharrean aurkituko bait da, eta bitartean zer egin da? Ibaiaren ekosistema hautsi, besterik ez.

Dragatuak egitea ez da inongo sistema ibaiaren prozesu naturala erregulatzeko. Hortarako, ikus puntu ekologikoak eta osoak erabili behar bait dira eta aldi berean ibaiari probetxamendu ona eman.

Bidasoa ibaiaren erregulapena eta arazketa planak aurrera eramatea, behar beharrezkoa da, gauza hauek aspaldian eginak egon behar bait zuten eta hor daude baztartuak eta bitartean dragatun egin eta eginez, Bidasoa ibaia ahulduz joanen da.

Zerbait egiteko ordua da oraintxe, herriak elkar hartu, Udalak konprometatu eta Bidasoa denen artean zaindu.

EHIZA. Ehiza paradak konpontzen ari dira eta hemendik aurrera ez da bertze solasik entzunen, usoa goitti eta usoa behetti. Eta hor hasiko dira, pim, pam fuego Ameztiko gain horretan.

Ehiztariok kasu! Ez bait dakigu aurten nola demonio ibiliko zeraten; idortea soberaxkoa , eta eguzkia bazterrak kixkaldu behar dituen honetan, usoak ez ezik zuek ere ederki beltzatu beharrean zaudete. Eta, gorririk ez, beltzak ikustikotan izanen garela iduritzen zaigu. Bai! Gure herriko gizasemeak beltzak bihurtzeko arriskuan daude. Hau duk hau martxa! Berehala zortziko dantzatu beharrean «runbitak» eta «saltsak» dantzatzen hasiko dira, hortxe, herrian dagoen palmondo bakarraren azpian. Orduan, uso pasea benetako pasea izanen delakoan gaude. (Idorteak ekar dezakeen gauza hobexkona izanen da).

MALDA ERREKA

ZUBIETA

HERRIKO OSTATUA. Herriko ostatua subastan atera ondoren, lau edo bost lagun ostatua ikustera etorri ziren. Hala ere, bi besterik ez ziren aurkeztu eta horiek klausulak behar bezala bete gabe. Beraz, berriro ere herriko ostatua herriaren eskuetan gelditu da. Eta orain zer egin!

¡Ño! holako etxe eder bati «bizi» pizka bat ematea eta aldi berean herritarrak bildu, egon, ong pasa edo beste edozer gauza egiteko laku aproposa bihurtzea ez litzateke inongo ergelkeria izanen. (Bideo bat paratzea eta ostirala edo larunbata arratsean pelikula ikustea joateko adibidez edo gogoratzen zaiguna egiteko). Ideak esaten jarriz gero milaka, gogoak berriz, zertan dauzkagu?

AURTENGO BESTAK. Aspaldian izan ziren eta atzera begiradatxo bat botatzeak ere ez du alaitasun handirik ematen baina solasean hasi gara eta tira!

Batetik, nahiko motelak izan zirela aipatu behar eta bestetik, TTIPI TTAPAri laguntzeko asmoz, herriko ostaturen estalpean (eta goizaldera bakarrik irekitzeko) taberna bat paratzea erabaki zen. Baina, azken mementuan, tabernalari bat ados ez zegoelako eta ditxosoko pakeak egitearren, ez zen ireki.

ERITZIA

Behar bada ez da Zubietan bakarrik gertatuko.

Hau miseria!

14, 15, 16 urtetako gazteak ez dute ikasten jarraitu nahi.

Zergatik ote da?

Ikasteari utziz gero, zer eginen dute?

Ikasten jarraituz gero, mundu pizka bat ikusteko aukera izan dezakete, mundua ez dela hemen hasi eta hemen bukatzen hain zuzen ere. Bizitzaren aurrean ere beste jarrera bat hartzen ahal dute; beti ere, bere eskubideen berri eta gehixeago jakinez gero, ba, bederen erne ibiliko direla. Lan kontuan berriz, aukera askorik ez egia esan, ez dago lanik (beno, lana bai baina dirurik ez, hemen askorik ez da ikusten behinik behin, beste lekuren baten pilatua egonen baita).

«Ikasten baduzu ez duzu lanarik aurkitzen eta ikasten ez baduzu berdin gertatzen denez gero, zertarako eskolara joaten jarraitu?» Batek baino gehiagok du hori burutan.

Lehengoan, herriko neska batek hau esaten zuen, suspentso azkar zituela eta berak ez zuela ikasten jarraitu nahi. Ez zuela Mugaireko eskolara gehiago joan behar. Etxean gelditu da. Eta, bera bezala, herrian badira beste hiru lagun gauza bera egin dutenak.

Egoera hau nahiko kezkagarria da, kontutan izanik adina berekoen artean, batek besterik ez duela jarraitzen Mugaireko eskolan eta beste batek berriz, Elizondoko eskola profesionalean.

Zer gertatzen ari da?

Hemendik aurrera komerik franko.

Zer egin eskolara joan gabe?

Hamabost urterekin betirako neskato, neska izanez gero eta betirako mendira, mutilaren kasuan, edo... Beste irten biderik ba al dago?

Herrian ere, egunerokoa egin egin behar da, gero!

OITZ

KOMUNALAK. Orain dela gutti, komunalak diren lurraldeak erdi hilik zeudela eta Udala kezkatzen hasi zen. Lurralde horiei nolabait ere «bizia» eman nahi zitzaion eta Udal hau, lagilea izaki eta hor hasi ziren hara eta honera, lur horiei nola eman erabilera ona jakiteko asmoz. Esan beharra dago Udal honetako zinegotzi gehienak, alkate bera ere horien artean delarik, ez direla abeltzantzan aritzen. Hala ere, komunal horiei «bizia» emateko orduan larre lekuak egitea pentsatu eta aurrera eramatea erabaki zuten. Gaur egun hortan ari dira.

Diputazioak 12 milioiko laguntza aurreratu dio, ondorengo hamabi urtetan inongo interesik gabe itzultzeko baldintzarekin.

Lanak aurrera doaz, pistak egiten ari dira, lurrak lantzen gero, belar hazia botatzeko, mineralak eta abonuak ere hasieran beharrezkoak izanen ditu eta berehala baserritarrek heuren haziendak larrera botatzeko aukera izanen dute.

Denera, 60 hektarea prestatuko dira. Lurralde hori gero, 3 hektareatako zatitan egin eta hesiak paratuz, herritarren artean banatuko dira.

Bakoitzak, gutxi gora behera, 10 mila duro ordaindu beharko du urteko. Hasiera batean, herritarren artean mintzatzean, 18 lagun baziren prest komunalekin honelako plan bat egiteko. Horregatik 21 zatitan banatzea pentsatua dago, horrela herritarrek hartzen ez dituzten zatiak, subastatuak izanen dira eta hor kanpotarrak parte har dezakete. Otsailerako dena zatitua egon behar du.

Orain kezkatzen dien gauza urarena da. Ez bait dakite leku horietan urik izango den edo ez. Hortarako ere lan egin behar. Dena dela, heuren asmoan zera dago, larre zati bakoitzan ura paratzea, haziendak eta edan dezaten.

Baserritarrei honelako plan batek, laguntza handia ematen die; batetik kanpotik alpapa eta ez dutelako erosi beharrik izango eta bestetik, orain artean 4 edo 5 behi bakarrik izateko aukera zutenek, hemendik aurrera 10 behi aisa paratu dezaketelako eta horretaz aparte, beti ere badaki behiak non dabiltzan larrean eta lur zati hori, baserritar bakoitzak ongi administratuz gero, bazka izan dezakeela.

UR GORDAILU BERRIA ere egin da. 100.000 litrokoa eta arrunt ongi doa. Hori ordaintzeko, erdia Diputazioneak paratu du eta beste erdia herriak. Orain nahiko ur iristen da etxetara eta gainera ezer ordaindu gabe.

BIDEAK KONPONTZEKO asmoa. Donamariako Bentetatik Oizera eta herritik baserrietaso bidea egin nahi da.

Aurrekontua 14 milioikoa da. Egun hauetan egunkarietatik jakin dutenez, 9 milioko laguntza heldu dela Diputazionetik. Beraz, hortik 14 milioietarako dirua, kreditoren bat eskatuz edo egin beharko da.

Orain dela 7 urte gutxi gora behera, dabiltza arazo honekin bueltaka, ordutik projektuak eta eginda daude. Garai hartan aurrekontua 9 milioietan zegoen (orain 14era igoa dago). Beraz, zenbat eta lehenago egin orduan eta hobeki izanen da.

EHIZEA. Inguruko herrietan bezelaxe, hemen ere ehize kontuan ari dira.

Oiztarrek aurten, 6 ehize postu subasta atera dituzte eta 800.000 pzta biltzea lortu dute. Hala ere, herritarrentzat beste 18 postu badaude, ez beste horiek bezain onak baina tira. 28 sozio daude herrian eta urtean 12 mila duro ordaindu behar izan dute eta horretaz gain bakoitzak herriari 2 auzolan zor dizkio.

ITUREN

AEK. Aurten martxan paratuko ote dugun ba, hortxe gabiltz denok nola edo hala. Malda Erreka hontan holakorik inoiz ez baita egin eta ez jakinki ere nola egiten diren gauza hauek.

Donezteben bederen berehala hasiko dira bi talde euskalduntzen. Eta inguruko herrietan berriz, alfabetatzen hasi nahi da. Hortarako, Narbarte, Legasa, Elgorriaga, Ituren, Zubieta, Sunbilla eta Donamariako zenbait lagun prest daude. Baina, oraindik zenbait urrats eman beharrean gaude; hasteko, denok bildu beharra, horrela jakinen bait dugu zenbat garen eta ondoren taldeak egin. Gero, diru kontua konpondu, udalei eta diru-laguntzak eskatu eta matrikula egin.



DONEZTEBE

KONTSULTAK. Aspaldian, mediku eta erizainaren kontsultak berritu eta behar bezala paratzeko laguntza eskatua zegoen, eta Iturengo besta inguru horietan nonbait, diru laguntza hori iritxi zen. Iritxi bai baina, lanak oraindik egiten hasteko daude. Eta, kontsulta horiek lotsagarriak daudela erratean ez genuke egia osoa erranen. Lotsagarriak ez ezik, higiene aldetik eta material gauzetik eskas bain eskasago daude, minimuak ere ez dituzte betetzen. Horrela dago gauza.

Kontsulta horiek, Mediku-etxean daude eta hiru herri hauei dagokien etxea da hau, Elgorriaga, Ituren eta Zubietari hain zuzen.

Mementuz, horko ardura gehiena Iturengo Udalak daramaki; obrak Kornelio Iribarreni eman zitzaizkion eta diru laguntza iritxi zenetik hiru hilabete betetzera doazte.

«Ez du merezi solas gehiago egitea, hitzak sobran bait daude»

OSASUN ZENTRUA. Donezteben Osasun Zentrua eraikitzen berehala hasiko dira.

Zentro honi buruz, jendeak ez daki gauza handirik. Baina erran behar da orain dela gutti, aurreprojektua Donezteb eko Udalean aurkeztu zuela Sanitateko lagun batek.

Osasun Zentru hori, 1987ko hasieran martxan egon behar du. Obrak berriz, lehen bait lehen hasi nahi dira egiten.

Zentru horren izenak adierazten duen bezala, osasunetaz arduratu nahi du eta hortarako zenbait ekintza desberdin egin beharko dira eta honetaz gain, orain arteko ideia batzuk aldatu; esate baterako, osasuna ez dagoela mediku, sanitario eta botiketan bakarrik, baizik eta bakoitzaren bizieran, herriaren izateko eran. Udalek eta beste erakundeek honetan duten errespontsabilitatea eta abar.



BAZTAN

UDAK URRIA JO DU eta oraingoan baztandar gehienak ados daude idortia dagoela. Aldizkari hau karrikara ateratzen den bezalaxe euria ekarriko duela diote Baztango Gaueskolako ikasleek. Eta euria kontu. Gartzaindarrek ura garraitu dutela erran behar. Iturri berri bat bildu eta behin betirako herrira urbildu dute Otsabiako Borda bazterretik. Herria aspaldiko urte hauetan urakin gaizki zabilen, eta aintzineko Udaletxeak bildu zituen Diputazioaren diru laguntzekin orain egin dira lanak. Sei milioetik gora gosta dira, baina gartzaindarrek ez dute ikusiko orain arte ikusi dituzten idortiak.

BAZTANDARREN BILTZARRA ospatu zuten baztandar guziek, inoiz ez bezain eder eta alai. Azken urtetan izan den bestarik ederrena izan zen. Hemeretzi orga apaindu, hogeita zenbait dantzari talde, bi mila lagun bazkarian eta herriarekin batean milaka lagun (hamabost mila egunkariek ziotenez). Bazkaldu ondoren bertsolariak Elizagoien, Amorena, Lopategi eta Lizaso, kantariak Etxamendi eta Larralde, Martikorena, akordioakin Gregorio Mitxelena, txistu soinua Mauriziok urtero bezalaxe urbildu zuen, baita ere txalaparta Leitzako bi gazteek, txaranga eta beste zenbait soinu izan zen bazkari ondoan. Bertan omenaldi sentitu bat egin zen Klemente Ezkurdia (Gorriti) bertsolari izan zenari. Karrikan giro ederra zen ilunabarrian eta baztandarrek urte bat gehiago jarraitu zuten besta honekin beren ezaugarri berriro ere hau zela: Nafarroa Euskalerria.

BAZTANGO HERRIETAN ere eskolak hasi dire, eta herri gehienetan euskaraz jarraitzen dute beren ikas lanak. Normaltasun bat gertatzen ari da baztandarren artean, euskara eskoletan. Eta bitartean ikastola sendotu nahi da, finkatzeko leku bat izan dezan.

BAZTANGO KULTUR ETXEA bukatzen ari da. Hau Arizkunenea bezala ezagutzen den jauregia da. Elizondo erdi erdian, eta bertan bi urte daramate lanean. Toki zabalak ditu etxe honek, eta orain ikusi behar nola bete. Zenbait taldeek eskatu dute Udaletxeari lekua nahi dutela eta lanean hasi. Etxearen plangintza bat egitea beharrezkoa izanen da.

BAZTANGO IKASTOLAK ikasturteari eman dio hasiera, bere tokia falta salatuz. Haurrak karrikan dira eta baita ere gurasoak. Elbeteko eskoletan denak ezin sartuz (130 haurtxo azken lau mailetakoak) karrikan jarraitzen dute beren irakasleekin beste lan batzu egiten. Bitartean Iturralde jauna badirudi giro gogor eta estu hau luzatu nahiean ari dela. Diputazioak hogeita hamar milioi eman ditu Pilar Ikastetxea erosteko baina honela izanta ere, Baztango Udaletxeak gauzak luzatu nahiean, ez du behar dituen azken urratsak ematen.

BAZTANGO UDALETXEAK hamar milio sartuko ditu Etxalarretik Orabidera dagoen bidea konpontzen, hain zuzen bikeztatuko da bide hori. Baztan aldean izan dira zenbait gora behera. Batzuk diote, milioi horiek Baztanentzat baino gehiago Etxalarrentzat direla. Dena dela, deneri hurbiltzeko bide berri bat denez, guzieri elkartzeko egin den bidea gertatu daien.

BERTIZARANA

1985KO NAFARROAKO ERAKUNDE LOKALEN INBERTSIOETARAKO dagoen zergen partaidetasun hondotik, Bertizaranako hiru kontzeju hauetara, Oieregi, Narbarte eta Legasara subentzioak iritxi dira.

Subentzio horiekin zenbait gauza desberdin egiten ari dira. Hasteko, Planeamenduko laguntz gisako arauak. Bertiz Arana osoa egin nahi dira. Nonbait, Planeamendu hau egitea arrunt interesgarria da, horren bidez lurraren erabilera, hau da lurralde bakoitza zertarako den ona bereisten bait da. Lan hau egiteko ekipo bat behar da, soziologoak, biologoak, arkitektuak, abokatuak eta abarrek osatutakoa hain zuzen ere.

Bertizaranako udalak, lan hau konkurtso publikora aterako du, gero ekipo bati adjudikatzeko. Ekipo horrek, lana egin ondoren Kontzeju bakoitzari aurkeztu beharko dio, onartua edo deuseztua izan dadin.

Horretaz aparte, Kontzeju bakoitzean berriz, subentzio horiekin horrela ari dira.

OIEREGIN, ur gordailu berria egin behar dute eta lan hori Kornelio Iribarrenei adjudikatu zaio.

Garbitzeko sarearen azken bideunea konpontzea erabaki dute eta hori ere Kornelio Iribarreni adjudikatu zaio.

NARBARTEN berriz, argikuntza publikoa zabaltzea erabaki da eta lan hau, ANEVESAindustriaren esku gelditu da.

Horretaz gain, Auzobideak konponduko dira. Baina, oraindik lan hau ez zaio inori eman.

LEGASAN, argikuntza publikoa berria paratzen ari dira eta lan hau Joakin Ziaurriz S.A. ari da egiten.

Garbitze sarearen zabaltzea berriz, Iturri S.L.ren esku gelditzen da.

Herriko etxea berritu egin dute. Herriko bestetan (Abuztuaren 28ean) inauguratua izan zen; arrunt polita gelditu da. Obra honetan, langabezian zeuden bi gaztek (Legasakoak biek) parte hartu dute eta Diputazioa eta INEM arteko kontratu baten bidez ordainduak izan dira.

Eskola ere, berritua izan da. Legasako eskola hau, iaz hasi zen martxan. Doneztebeko kontzentrazioa ireki eta gero hemengo hau itxi egin bait zen. Beraz, berriz ere haurrak herrian ikusten dira, herria biziago dago, karrikan haurrak jostetan eta herriko eskolan berriz 20 bat neska-mutil eskolaurrea euskaraz egiten.

MAFALDATXU

Eskubideak eta betebeharrak



A. E. K. BORTZ HERRIETAN

Alfabetatzen Euskalduntzen Koordinatzaileak bost herrietan alfabetatzeko eta euskarari bultzada bat emateko konpromezu zaila hartu nahi du.

Ikusten denez herri hauetan gero eta gaztelera gehiago entzuten da eta irakurtzeko edo idazteko oso atzeratuak gaude. A.E.K. herritik sortutako erakunde bat da (ikasleen, irakasleen eta direkzioaren artean osatutakoa).

Horrela, erakunde soziala bat denez, instituzio aldetik oztopo galantak topatzen ditu.

A.E.K. euskara biziz erakutsi nahi duen erakunde bat da; kalean euskara eguneroko tresna bat izan dadin.

Honengatik eta nolabait bere ekonomia altxatzeko eta, Korrika eta gisako ekintzak antolatzen ditu.

Nafarroan, gure herri aldean, euskararen arazoa besteetan baino handiagoa dugu eta diputazio aldetik oztopo handiagoak dauzkagu, horretaz A.E.Krentzat ere zailagoa da hemen finkatzea. Oztopoak:

- Subentzio mailan oso diru gutxi lortzen du.
- Lokala mailan lokal publikoak oso zailki lortu daitezke.

Euskaraz eta kitto!
A.E.K.

BERA EUSKALDUNA

Bera, Bidasoako Bera
Euskal Herriko bihotzeko Bera
Euskal Herria
Euskaldunen Herria
Euskalduna
Euskara duena

Bera euskalduna, honelaxe nahi dugu gure herria. Bera bezalako herririk aurkitzea zaila izanen dugu, munduan den polit eta ederrena baita. (eta inorri ez diot barkamenik eskatu behar). Ibiltariarentzat Berako pista eta bidaxkatan baina galtzea, zein atsegina den! Gure hauzoak eta mendiak, gure arboldi, erreka eta errekatxoak, denak euskalduna, urtetan eta urtetan euskaldunak.

Mendietatik datozkigun urek Euskeraz kantatzen digute, gure zuhaitz zaharrek Euskeraz solasten dute. Zertaz egin behar dute bada, mendetan eta mendetan beste hizkuntzarik ez badute aditu??

Beraz pentsatzeko, jabetzeko, Bera maitatzeko Euskaraz egin behar dugu, ez dago besterik, bestela, nola ulertuko ote digu gure amoranteak?

Beran eta erdaraz?? Nola burutu ote daiteke? Turistak, arrotzak ote?

Egunsentia Beran
Eguzkia lainoarekin borrokan
Batzutan, eguzkia irabazle (ederki kostata ere)
Bera berdea eta alaia, loretsua, hiztuna.
Batzutan, lainoak nagusi
Bera tristatua eta pentsati, isila, bustia.
Ilunabarra Beran
Ardoa eta sua, amodioa.
Bera, zein polita zaren!

Ni beti, guk izan genuen inspektore batetaz oroituko naiz. Madrideko atso-zahar bat zen hura. Eta harat honat eta buelta honat etortzea suertatu zitzaion. Gaixoa, erori zitzaiona! Eskolako elebitasuna dela, ikastolako diru-laguntzak direla, Arantzako eskola berria dela, Etxalarreko... hura problema pila! Zer zaila zen arrotz harentzat gure arazoetaz jabetzea. Kotxerik ez zuenez gero, harat honatak autobusez edo taxiz egin behar zituen. Honek gure lurraldea ezagutzeko sekulako aukera ederra eman zion. Eta egitan erraten dizuet, ezagutu ahala bere miresgarritasuna haundiagotzen zen. Elkartzen ginen aldiro horrelako zerbait ere erraten zigun (baina erderaz): «ez dakizue Jaungoikoak zer nolako erregalua egin dizuen. Ez dakizue zein edertasuna duzuen lur hauetan¡ zer inguru ederrak, zer mendiak... Duzuen aberastasun honetaz, altxor honetaz, faborez, Jaungoikoari eskerra eman.» Andre hura Arantzako eskolan sartzean, dituzten inguru eder horietaz Jaungoikoari eskerrak emateko, haurrak zuti arazi eta otoitz egin arazi omen zien. Noski katoliko, apostoliko eta roma-



noa bait zen. Inspektore hark gure arazoei ez zien irtenbiderik eman, mundua gainera erortzen zitzaion, eta berehala joan zen, baina berak erran zigun bezala munduko herririk politena ezagutu zuela eta bihotzean zaramala zihurtzat jo dezakezue. Hark ere Bera eta Euskara bat egiten zuen.

Garai batean, gure Euskara Euskal Herriko mugetatik kanpo zabaltzen zen. Erronkariko zuhaitzek, almadia bat osatzen zutelarik, Hego alderantz Euskal Herria zeharkatu ondotik, Tuterara iristean, bere anaiak Euskaraz agurtzen zituzten. Bidasoako urek, gure urek, kantauri itsasoan Nerbiongo urekin elkartzen zirenean, Euskaraz elkar agurtzen zuten. Gaurregun gure ama-hizkuntza hementxe dugu, zoko honetan babestua, gordea. Hizkuntz arrotz madarikatu horiek bere eremuak kendu dizkiote. Eta gu hortxe, patxada; gure amari laguntzeko, zer gutxi egin dugun!! Baina ez dugu hiltzen utziko, hasiak gara ernatzen. Ohartu gara, bai, arrotz alproja horiek bere maina eta zurikeriekin zer nahi zuten. Euskara gureganatu, eta kendu ziotena berreskuratuko dugu. Euskara txoko honetatik munduko azkeneko bazterreraino eramanen dugu.

Uda Beran:
belarra eta izerdia
Eta a ze festa
Eta zu, Euskara maitea
Gero Udazkena
Gorrixka, horixka...??
Hostoak, haizearen hotsa
Eta zu, Euskara maitea
Negualdia
Grisa eta zuria
Bakardadea, laguntasuna... gogoetan
Eta zu, euskara maitea
Udaberria
Kimutzen da bera
ernatzen da
eta zu, Euskara maitea
Bera, oparotasuna, maitasuna... eskaintza.

Bestela , bizu, bizu nire Euskara maitea, hantxe zinen Yugoslabiako zokorik ederrenean. Haraino eraman zaitugu. Zein ederki, hantxe, kartel batean, beste hizkuntz poteretsu batzuren ondoan: «IBILALDIAREN LUZAMENDUA: 20 MINUTU. Ez dakizu, zu han ikustean zein poza nagusitu zen guregan! Eta hori, hasiera besterik ez da. Dendetatik ere bidali zintuztegun, baina eremu hori ere berriro ere ari gara hartzen. Eta beste aparailu arraro hori sartu zenean, bai kaja ergela edo tontua deitzen duten hori, eten gabe erderaz aritzen dena (edota zena). Horrekin ia-ia zerraldo gelditu zinen. Baina tira! horretan ere borrokan ari gara eta dirudienez gure mandatari erdaldun horiek Euskal Telebista zabaltzera behartu ditugu. Eta gehiago bada! Orain, hementxe, zure herri honetan zzu bost herrietako haizeetan barna ibil zaitezen, irratitxo bat sortu behar dugu, zuretzat izanen da, eta zuretzat bakarrik. Beste hizkuntz lapur horiei pitin bat ere ez diegu utziko. «Segapoto Irratia» izena jarri diogu. Polita eh?

Baina ez gara fidatzen gero! Badaezpada ere zelatan egonen gara. Gure borroka luzea izanen da, baina kementsua eta alaitsua. A zer poza etsaiak suntsitzen ditugularik!

Hemen gure txoko honetan bi lagun elkartzen garenean erabiltzen ditugun agurrak horiexek berak erabiliko ditut zu agurtzeko Euskara maitea.

Aunitz urtez, segi bizkor.

Xabi.



NEW YORK-TIK ZUZEN ZUZENEAN



Bai zaratatsua izan dela New Yorken dauden kubatarren artean «MARTI» irratiaren hasiera bere programa bereziekin! Ez dut uste orain arte inor gai izan denik garbi bere «mezua» entzuteko. Baina ahaleginak egiten ari dira bere mezua Washintonetik Floridara eta gero Los Angeles aldera edatzeko. Ez dakit irrati berri hau dela medio edo Fidelek aldebiko akordioa puskatu egin duelako, hemengo kubatarrak zaratatsu dabiltza.

Manhattango alderdi latinoan Flora Pardo bizi da. 59 urte izango ditu gutti gora behera. Floraren ahizpak eskaera ofiziala eskatu egin zion Kuban sartzeko. Eta eskaera hau Kubako iraultza bukatu ondoren egina izan omen zen. Flora Pardo 1979an turista bezela joan zen Kubara...

«Nola aurkitu nuen Kuba? Bai eskola ederrak... eta zer nolako etxe handiak. Eta Maleconeko Hospitala zeinen ederra... Bai, bai, asko aldatu egin da. Eta nere semea... nola handitu da, bizarra eta guzti dauka...»

Flora U.S.A.ra itzultzera behartua izan zen eta geroztik mila eskaera Washingtonera egin ditu Kubara itzultzeko asmoak zituelako... Bere iritsiz, Kubako Gobernuak baimena ukatzen dio. Zergatik? «Ni ez nengoen Fidelen kontra eta nere froga zein den? Ba, hor daukazu nere semea partiduko komunistako partaidea...» Baina emakume honek ez du ulertzen bere semea eta bera bi gauza desberdina direla. «Bai, gero eta itxaropen gutxiago Kubara itzultzeko...»

Emakume hau bizi den auzoa Harlemetik oso gertu dago. Latino gehienak alderdi honetan bizi dira. Honera iristen zaren bezain abudo... beste mundu batean zaudela dirudi... Puxkaka lurrera erortzen diren kotxe handi handi horietatik... metroko bagoi guztiak kanpotik eta barrutik beltzez margotuak... kaleak zakarraz zikin zikinak... erdera hizkuntza nagusia... jendeak pitza eta platanoak jaten ditu, karkaxak eta paperak lurrean bukatzen dute... eta platano, laranjaren azalak kotxen leihotik kanpora nola nahi erortzen dira...

Mahai ttiki batean 6 gizon nere inguruan hizketan... «a Fidel se le va a volver el pueblo en contra cuando la gente se enetere de lo bien que se vive en el mundo capitalista» dio batek, «es mas efectivo luchar contra el comunismo con la verdad que con las balas» dio beste batek. «Castro intentara neutralizar la entrada de la emisora, ya vera usted, porque sabe que lo que Reagan quiere es quitarlo del poder...» nere ondoan dagoenak dio.

Ni nere paper zatian ulertzeko gai nintzen guztia idazten... eta bat batean zerbait bero beroa bizkarrean sumatzen dut... esku ezkerra berehala atzera eramaten dut eta berriro nere sudur ondora... ah... pixaren usaina dela konturatzen naiz eta alde batetik bestera nere begiak azkar demonio nor izan den bilatuz...

«Es un Marielito hijo de puta» ohiukatu zuten denak batera, ate ondoan beltz flako bat ikusten dut laisterka ateratzeko jarreran... «Ikusiko duzun nola Reaganek Mariel irlako delikunte hauek abioi batean sartzen ditun eta Guantanamos irlara bidaltzen dituen... lasai geratzeko erran zidaten.

Maite Erro. New York, 1985eko Irailak 14.

ALFER ALA LANGILE?

PSSITT! Lana egin behar da!... Zer, lan eta lan?... Aritu behintzat!... Alferkeriak ez du prestijiorik, fama edo entzute onik. Aberatsak ere, diotenez, beti lanpetuak dabiltza: dutena ugaritzen, aldamenekoa gainditzen, lapurrengandik defenditzen. Aberatsa izatea, lan gogorra duk!.

Sinetsi edo ez sinetsi berdin duk, irakurle maitea. Hire kasua ez duk! Aberatsak ez dute TTIPI TTAPA leitzen; ez txiroak, ez alferrak,... Argi dago, orduan: lana dun edo lana ez dun langile bat haiz hi. Langile eta irakurle haitugu. MUA, MUA! Musu bi!

Ari gara finkatzen. Langile bahaiz, bitakoen bat: «labrador», beti aprendizzz edo fabrikante izango. Profesional? Arrantzalea?...

Hobe dut bat aukeratzea! Baserritarra edo mila ofizioko jauna! Eta baserritarra ez da, neretzat, baserrian bizi dena. Hiritarren ikuspegia hartzen dut eta baserritarren zakutuan herritar guziak sartzen ditut: nekazariak, hazienda dutenak, mendian lana egiten dutenak, etab. Lehen esan dutena: mila ofizioko jaunak.

Gogoan hartu ere gehienak -nik ezagutzen dudanagatik- etxeko eta lantegiko zeregina betetzen dutela. Fabrikan zortzi ordu, joan eta etorri; belarrak eta iratzeak; haziendak eta etxeko konponketak; arrantza eta ehiza;... Normal! Sasoia eta lana hitzak ezin ahotik kendu! Lanaren adoratzaileak!

Globalki begiratuta, baserritarrok lana dute jaungoikoa eta deabrua. Itxuraz, behintzat, ez dute bizitzeko lana egiten. Lanerako bizi dira.

Lana dute elkartzeko eta hasarratzeko motiboa; beste salatzeko arrazoia; kinta edo belaunaldi batekoak bestekoak kondenatzeko atxakia;... enpin, enpin: LANA, LANA eta LANA. Lana eta lanzaletasuna dute ideoloji nagusi.

Egindako lanagatik harrotuko dira; lanetaz hitzegingo dute etxe barruan eta atarian -eguralditaz ere!-; seme-alabak edo bizilagunak -bizietsaiak- klasifikatzeko haria, lana dute;... Zer gehiago?

Baserritar alferrik bai ote? Dudarik gabe... bat edo beste,...

Ezagutzen dut nik bat, fama handikoa. Herri txiki baten bizi dena. Beti berriketarako prest, lanerako astirik ez zuen, gehienetan harrapatzen eta, adibidez, ongarri karro bat ustutzea -simaurra burdi bat- goiz guztia kostatzen zitzaion.

Hurrengo hau ez da nik ikusita baina, esaten dute bazkalondo batean etxetik atera zela gure J., borondate onez betia. Karretila zaramakien, erremolatxaz betetzeko intentzioan.



Abiatu zen alorra aldera eta,... bat topatu, bestea topatu; honekin hitzegin, solastu harekin;... Negua izaki ia-ia... egun motza, eta bazka gabe etxeratu beharra. eskerrak, etxeko nagusia dugula!

Beregan jarri nituen nere esperantzak. Lanaren ideoloji kontrakoa ote? Hori uste nuen, ergela ni!

Holako batetan minez jarri, sendatu, ahuldu eta indartzen ari zela kalera atera zen, handik eta hemendik, bere gaitzaren pauso guztiak zabaltzera eta... Bere senideen lanak bijilatzera: haiek istilu eta ohiuak.

-Hori horrela egin behar da!!!

-Zerriak bazkatu!!!

-Alorra garbitu!!!

-Artoa erein!!!... Penagarria... Pikutan dira nere itxaropenak, esperantzak eta pozak...

Baserritarrak, nahiz alferrak izan, beti lanaren ideoloji aldekoak. Beurentzat ez bada ere, besteentzat: LANA, LANA, LANA.

Balaunaldi edo jenerazio berriari itxaron beharko zaio...DIRUA, DIRUA eta DIRUA.

NIKOLAS




84

AUÑAMENDIKO IBILALDIAREN EGUNKARIA

Nafar ekologistek antolaturik egin berria da Nafar Auñamendiko ibilaldia. Jakina denez, Hondarribitik irteten zen ibilaldi hau, helmuga Belaguan zegoelarik. Oinez egin behar zen bidai luze hau egunero etapa motz eta bestetan ez hain motzak korrituz. Bestalde, esan behar da, herri gehienetan Ibilaldiko expedizioaren ongietorria prestatzen zutela zerbait, partaideen gogokoan izan zirelarik batez ere Lesaka eta Elizondon egindakoak. Egun horietan egon ez banintz ere, benetan aipatuak izan ziren gertakizun horiek eta bereziki, Lesakan iraganeko gau-pasa eta Elizondoko afari goxoa.

Aipatutako ibilaldi honetan neuk zenbait etapa egin ditut, eta norbaiti interesatuko zaiolakoan egunkaritxo hau prestatzen saiatu naiz, jakina ! ni bezelako idazle afizionatuak dituen muga eta ezgaitasun guztiekin.

Uztailaren 20a. Larunbata.

Goizeko 10,30ak inguru dira Elizondora iritsi naizenean, eta halako urduritasuna sentitzen dut gorputzean. Izan ere, gerrara ez noan arren esperientzi berriaren aurrean bait nago. Ibiltariak non dauden bilatzea da ene lehendabiziko lana, eta ahalegin horretan nabilelarik topo egiten dut talde batekin denak bota eta mendiko jantziez dotore apaindurik.

- Aizue? galdetzera ausartzen naiz, nolabait harremanetan sartzearren. - Nondik irteten da martxa?

- Bai, neu euskaraz mintzatu natzaien arren erdaraz beraien erantzuna. Hor aurreraxeago, enparantzan.

Herriko enparantza inguruan izugarrizko jendetza dabil euliak bailiren. Batzuk egunkaria irakurtzen, besteak fruta jaten...

Lehen begirada zuzentzean aurpegi ezagunen bat bilatu nahi dut baina ez dut bakar bat ere aurkitzen. Benetan jendaira bitxia hauxe kalpar luze bizar haundi trentzadunak, gizon-andre luze-mehe lirainak... Adinaz ere denetarik dagoen arren gazteen eza da lehen inpresioa, nahiz eta hamar urte inguruko neskatxa gazte polita dabilen salto, algara, josteta eta solas.

Taldean nola sartu asmatzen ez dudanez, egunkaria erostera hurbiltzen naiz alboko denda batetara.

- Aizu! « Egin » bat mesedez.

- Aqui no vendemos.- Dendariari aurpegian ikusten zaio ez dela Euskal hiztunen zalea.- Eso en la calle paralela - . Gezurra dirudi Euskal Herrian gaudela.

Noizbait irteera eman diogu Martxari Arizkunarantz abiatuz. Dirudienez hemen denak elkar ezagutzen dute eta berehala sortzen dira hiruzpalau laguneko taldeak. Aurrera goazen era berean bata bestearengandik urruntzen eta expedizioa luzatzen doa. Azpilikuetako elizako dorre erraldoi ikusgarriari begira nagoela hitza ematen dit mutil ile kizkur buru zuri batek.



- Zein eliz polita eh!

- Bai,- erantzuten diot pozik harremanetan sartzeko aukera ikusirik.

Ondoren bata bestearen atzetik izugarrizko galdera pila egiten dizkiot nolabait expedizioaren mobida ulertu nahirik. Bere bidez ezagutzen ditut hainbat bitxikeri. Adibidez, expedizioan herrialde askotako jendea dagoela. Gehinegoa Nafarra bada ere eta bereziki Iruinea eta Erriberakoa, Euskal Herriko eskualde guztietakoa omen dago. Baina Euskal Herritik at, Zaragozatik, Cataluñatik, Mallorcatik eta Valenciatik ere etorri da jendea. Aipagarriena halere Paris-etik etorritako neskatxa gaztearen kasua da. Ikus dezakezuenez kultura guztietako gizakiak.

Arizkungo herrira iragan eta Erratzura iristen gara, bertan euri pixka bat hasi duen aitzakeriarekin gosaltzen geratzen gara. Erratzutik gorant abiatzean aldapa gogor eta neketsua dator, birikak hestutu eta gorputza izerditan jartzeko aproposak. Lehenbiziko egunetan galdurik ibiliak diren arren gaur ez dugu arriskurik, gidari trebe eta arduratsua bait dator gurekin.

Ordu biak aldera, ehiztari txabolen gerizpean bazkaltzea erabakitzen dugu. Bazkari goxo eta galant horietakoa ez da, baina katxondeoa eta barre ugari dabilkigu bazkaltiarren arten, zahato ardoak geratu gabe astintzen ditugularik.

Bazkaldu ondoren ibiltzeari gorputzak musin egiten dio, galbana eta lo egitea eskatzen baitu. Halere derrigorrez abiatu behar! arratsaldea aurreratu xamar dagoela iristen gara Izpegiko mendikatera gidariak gure kasa uzten gaituen bitartean. Belaunak gehiago sentitzen duten arren, berantz haisago goaz, jakina denez kakak ere goitik behera korritzen baitu.

Iparraldera iristean, Baigorrin nekatuxeak gaude eta atsedena bilatzear errekan bustiadi ederra hartze dugu. Garbiketa lanak egin ondoren eta atseden lekuan (Baigorriko dultzaineroen egoitzan) gure tresnak utzi ondoren herriari itzulia ematera goaz pote batzuk hartu bidenabar.

Poteoko gairik komentatuenak Euskal Herria eta Euskara dira. Bidean gentozela zenbaitzuen ahotan Francia hitza erabilia izan da Iparralde ordez. Hori dela eta, zenbait iskanbila iskanbila izan ditugu eta ahalegindu gara hemengo arazoa azaltzen. Gure herritik kanpoko jendearen portaera gai honi buruz konprenigarria da informazio eza iza dezaketelako baina beste batzuk, hemengoak diren antza gehiegirik ez dute. Ibilaldi honetan Euskararen erabilera murrritza ere ikutu dugu, erdara guztiz nagusi baita gure harremanetan. Dena dela hau ez da berria gure artean, Euskal Herriko eguneroko errealitate beltza baita.

Arraultzak, fruita apur bat eta esnea edan ondoren oheratzera noala logelara lagun batzuk azaldu dira, batzarrea egin behar dela adieraziz. Biharko bidai luzea dugu Baigorritik Auritzera bait goaz eta batzuk izutu dira. Donibane Garaziraino autobusez joatea proposatzen dute irtenbide gisa. Nahi duenak oinez eta gainontzekoak bidaia erdia autobusez egin dezaketela erabaki ondoren ohatzera goaz, gorputzak aspalditik hori eskatzen bait zuen.

Uztailaren 21a . Igandea

Argiarekin batera jendea zirri-zarra hasten da mugitzen zarata eta hotsa dexente ateraz. Gogo gehiegirik gabe, nik ere jeikitzea erabakitzen dut. Esaera zahar batek dio; « gaua alai, biharamonean lo egin nahi» eta gure artean egoera horretan gaude. Autobusez joan beharrekoak irteera 9,30 etan dute programaturik eta zazpiak besterik ez direnez gero ez daude konforme gure ibilarekin eta hitz txar eta haserraldiak ere badira gure artean. Goiz jeikitzeak dakarzkin ondorioak dira noski!.

Esnea eta gaileta batzuk hartu ondoren irteera ematen diogu expedizioari. Ibilaldi honetako partaideak laurogei inguru gara baina gaur erdiak inguru bakarrik ausartzen gara Baigorritik Auritzerako bidai hau osorik egitera. Bidaia nahiko luzea izatez gain, gidaririk gabe egin beharrak kezka sortzen du ibiltari askoren burutan.

Gaurko ibilaldia benetan zoragarria da. Gisa guztietako gauzak ikusten ditugu: Baserriak, etxebizitzak, errotak, zuhaitz mota guztiak ... Behin gorantz iritxiz gero abere franko dago belar goxoak dastatzen; pirinaika arrazako behiak, ardiak, behorrak etab... Bestalde, nahiko gora gaudenez, mendi luze eta aldapatsuak dira, bildurra sortzen zaigularik. Sarritan, gure artean aipatzen dugu aurrerantzeko mendiaren atzean ia ez dela baserri edo etxebitzarik egonen, bai zera! Hemengo bailara ezkutu eta xokoetan ere gizonaren aztarnak aurki gaitezke. Gaur, gehienbatean Euskadiko Iparra eta Hegoa banatzen dituen muga ingurutik goaz. Askotan pentsa ohi dut, mapa bati begira nagoela, estatuak elkarren artean banatzen dituen mugak nola ezarriak ote diren. Europako estatu gehienak, arrazoi ekonomikoagatik eta indarraren bidez eraikiak direla garbi dago, Euskal Herria delarik lekuko. Jakinen gainean egon ezik, inola ez daiteke asmatu noibeinka ikus daitezken mugarri erraldoi sendoak «Francia eta España estatuak» mugatzen dituztela. Mugen bi aldetara begiraturik, bista bera da. Abereak alde batean zein bestean dabiltza eta artzain txabola eta ardi-bordak mugan bertan ikus daitezke. Bi aldetako biztanleen hizkuntza bera da, ohitura berdinak eta bizipidea ere bai. Baina, potereak ez dute herri baten osotasuna kontutan edukitzen dirua tarteko bada.

Atzoko eguna pasa ondoren, taldean ia guztiz integraturik nago eta piskanaka jendea ezagutzen noa. Benetan pertsona bereziak badira ibilaldi honetan. Gaur, besteen artean, topo egin dut kazetari eta irrati gizon birekin. Irakasleak ere badira frango, baina ene arreta gehien esnatu duena mutil gazte iletsu bizar haundi bat izan da. Bakarti xamar eta naturarekin bat eginez edozein zuhaitz mota, fruitu, perretxiku ikusiz gero begira geratzen da. Bazkaltzeko atsedena probetxatuz eta elkarren hurbilean gertatu garenez galde egiten diot bere bizitzaz. Baserri batean bizi da beste lagunekin batera eta nekazaritza du ogibidetzat. Arratsaldeko ibilera berekin batera egiten dut eta harrigarria da mutil honek sendabelarrei buruz dakiena. Belarren izenak, zein motakoak diren, ze eritasun sendatzeko balio duten, non ateratzen diren... Bestalde, nekazaritza biologikoari buruz hainbat gauza badaki eta arlo horretan saiatzeko asmoak ditu.

Auritzera iristerakoan gaueko zortziak ederki pasean dira. Gaurko ibilaldia hamabi ordukoa izan da eta era bat nekaturik iritsi gara. Eskerrik egun eguzkitsua den eta oraindik eguzkia gorde barik dagoenez, bustialdi atsegingarria hartzen dugu Auritzen zehar iragaten den errekan. Herriko pilota lekuan gure tresnak utzi ondoren herriari ohiturazko itzulia ematera goaz, pote batzuk hartu bidenabar eta janari beroaz estomaka betetzeko probetxatuz. Pilota lekua lo egiteko atsegina ez den arren, gorputza nekaturik egotean loa aisa hartzen dut, zakuan sartu baino lehen ia lo nagolarik.

Gauerdian, ez dakit zein ordutan izugarrizko zaratak esnatzen nau, motozerra edo zer ote daiteken ene buruari galdeginez. Baina ez. Ez da horrelakorik! Gizon baten zurrunka hotsak dira

-Auñamendiko otsoa etorri zaigu.- Dio norbaitek gertakizunari alde barregarria bilatu nahirik.

-Sar diezaiotela galtzerdia. Beste batek loa galerazi dioteko aserraturik.

Nolabait ixildu arazi dute beintzat eta pakea itzuli da



gure logela berezi honetara.

Uztailaren 22a astelehena.

Ohi den bezala, goizaldera jeiki eta irteera ematen diogu martxari 9ak inguruan. Oraindik goiza izanik ere, eguraldi bero eta sargoia dago, haizegoa furrundan dabilela. Horregatik, gaurko martxa ez da hain atsegina. Jakinik, Arrietaraino errepidez joan behar dugula. Eguerdirako Arrieta alboko errekan gara eta iritsi heinean jendea uretara doa gorputza freskatzera; batzuk bainadorea jantzirik dutela eta besteak bilutsik, hemen ez baitago inolako zentsurarik, nor berak bere buruari jartzen diona ezik.

Batzuk bazkaltzen gaude, besteak uraren frexkotasuna gozatzen eta beste batzuk eguzkia hartzen, larruaren kolorea hartu nahirik.

Guri zuzentzen den ahots gardena entzuten dugu, zubi gainetik:

-¿Que hacen ustedes en pelotas? Vayan saliendo de tres en tres. Gehienok, harriduraz beterik zubirantz begiratzen dugu, trikornioz eta berdez jantziriko «guardia civil» parea da.

Lehen inpresioa pasa ondoren, sakabanatuak geunden jende guztia elkartzen gara zubi alboan, «guardia civil»en agindua betetzeko asmorik ez dugu. Hauek uste baino jende gehiago garela ohartzean eta haien esanetara makurtzera ez gaudela prest ikusiruk, aldegitea erabakitzen dute. Hori bai! moralitaterari buruz sermoi luzea bota ondoren.

Arratsaldez, Oronotzeko eskolako irakasle batek, Auñamendiko egoera sozio-ekonomikoari buruz ematen digun hitzalde interesgarria entzun ondoren, berriro irteten gara Lakaberantz. Gorraiz herrixka zehar pasa eta leku harritsu-idor-tristean sartzen gara. Orain arte berdetasunean murgildurik ibili bagera ere orain leku legorretara goaz. Bidexka baten zehar, ilunabartzean iristen gara Lakabe herrira.

Lakabe herriaren istoria benetan bitxia da. Duela hogei urte inguru, hutsa geratu zen, jende guztia aldegin baitzuen. Duela bost urte, biztanle berriak etorri ziren birreraikitzera. Bertakoak diotenez, erabat izorraturik omen zegoen, etxe gehienok idorra gaberik eta zenbaitsu erortzen hasiak. Berritze lanok hamabost urte iraun dezakete.

Biztanle berriak denak hiritarrak ziren eta sakonki eztabaidatu omen zituzten eman beharrezko urratsak. 1.980garreneko Udaberri egunean hartu zuten bizipide berri hau hamabost lagunek. Geroztik jendearen joan-etorriak etengabe izan dire. Dena dela, jendaira hau militarismo eta nuklearren aurkako borrokan ibilitakoak dira eta herria autogestio eskola bilakatu nahi dute.

Gehienbat, bertan produzitzen dutenetik bizi gara: barazkiak, usoak, ahuntzak etab... Diru sarrerabideak nahiko mugatuak dituzte: ogi integrala eta eskulanetatik lortzen dutena. Beraz, diruari dagokionez zuhur bizi dira eta hura denen eskuetan dago. Mementuko kezkarik larriena, herriko hiru haurren hezketari dagokiona da.

Gure etorrera ederki prestaturik daukate. Egun frango omen dituzte ahalik eta ura gutxien gastatzen, geu garbitu ahal izateko. Bestalde, gaur gauerako besta ederra prestaturik daukate.

Garai batean herriko enparantza izandako zelaigunean mahai batzu edatu eta denok batera afari bejetariano egiten dugu, «zurrakapotearekin» ederki bustirik. Afaria bukatu ondoren, gorputzaren sukarra probetxatuz dantzaldia herriko taldeak alaitua. Ez du noski, gaur egungo herri edo hiri haundien antzarik, ez baitago ez argi eta ez ostaturik. Enparantza erdian egur mordoska su eta gar daudela, duela ehun urtetako akelarreak oroituarazten naute.

Uztailaren 23a asteartea.

Atzoko bestaren ondorioak pixka bat baretzeko ur zurrupa luzea egin ondoren gosaltzera noa, urdailak ezer ez eskatu arren. Gosari bitxia prestaturik dago: ahutz esnea, eztia, intxaurrak, ogi integrala etab... Ez nuen inoiz edan ahutz esnerik, nahiz eta ura nahasirik izan, nahiko fuertea iduritu zait.

Gosal ondoren Lakabeko txoko guztiak erakutsi dizkigute. Liburutegi eta guzti badituzte eta garai batean eliza izandakoa egokitzen ari dira bisitariak non lo egina izan dezaten. Bestalde, topaketak antolatzen hasiak dira, eta horretarako leku egokiak prestatzen ari dira.

Hamarrak inguruan errekarantz goaz, Artozki herriaren albora. Esan behar da, Lakabe herrira ez dagoela kotxez joaterik, errepidetik herrira oinez ordu erdi inguruko bidaia dago.

Atzo gonbidatuak gu izan ginen eta gaur esker hori itzuli nahi izan diegu. Lakabekoei barazkiak oso atsegin zaizkien arren, guk paratuta, arkumea dugu janaritzat, aragizaleak baigara, sarritan gorputzaren kalterako izan arren.

Gaur berriro bisitariak izan ditugu. Lehengoan ez genuen ongietorri alaia izan, baina gutaz benetan kezkatzen dira, ezer txarrarik gerta ez dakigun. «Guardia civil»ei buruz ari natzaizue hizketan. Heuren nahia, ohi bezala, bilutsik ez ibiltzea litzateke, izan ere udako hotzak ondorio onarik ezin bait dezaken ekarri. Badakizue!... Katarro txarren bat edo...

Gaur arratsalderako badago eginkizuna prestaturik. Hemen, bailara honetan, urtegi haundia eraiki nahi dute: Itoitz izena duen projektua. Hori dela eta, manifestaldia pentsa da egitea herriko jendearekin. Seirak inguruan ematen diogu hasiera jendez frango ornitutako manifestaldiari, musika eta kantuz alaiturik. Hemengo herriak txikiak izan arren, nabari da sentiberaturik dagoela, izan ere projektu honek, zazpi herri urperatuko baititu.

Manifestaldiari amaiera emateko itzaldi eta batzarrea dago prestatua, Mario Gabiria etorri delarik hizlari bezala. Honek, garbi azaldu ditu urtegiaren ezegokitasun eta izkutuan dabiltzan interesak. Izan ere, gezurren bidez herriari uste egin arazi nahi baitiote ura Nafarroan geratuko dela. Batzarrean zenbait indar politikoak hartzen dute parte, akordio batera ailegatuz.

Urtegia ez dela Nafarroako herriaren onerako izanen, ura ez baita hemen probetxatuko. Gogor borrokatu behar dela projektu honen aurka eta ez eskualde honetan bakarrik, Nafarroa osoan baizik, Urralburu hor bait dabil Erriberan zehar ura heurentzako izanen dela aginduz.

Eguneroko potetxoak hartu eta ohera orduko gaua aurreratua da. Pilota lekuko iluntasunean zakua aurkitzea ez da gauza erreza, batez ere bista nabarmenduxea dabilenean. Bizkarrezurra ere aserraturik daukat, pilota lekuaren solairu gogor honetan lo egin beharra ez baita txantxetako gauza, saieska ez bada, beti hortzaz gora egon beharra.

Uztailaren 24a asteazkena .

Gaur atseden eguna dugu. Bidai motza dugu programaturik, hamarren bat kilometro, eta aintzinakoak ikusita, gaurko hau atsegintzat har daiteke. Bestalde, beharrezkoa genuen horrelako eguna, nahiko egoera larrian bait gaude: taldearen gehientsuenak kristoren kakeriarekin daude eta gainontzekoak mainguturik, neu tarteko naizela.

Erdibidean itxoinaldia egitea erabaki dugu; arropak garbitu, uraren frexkotasunaz gozatu eta beharbada siesta egiteko. Bazkaltzeko gatzarik ez dugunez, atseden lekutik gertu dagoen etxetxo polit batera goaz galdezka. Oso arrera beroa eskeini digute, tragotxoa hartzera gonbidatuz. Sukalde bazter batean, aulkitxo batean eserita adinezko gizon mehe bat dago. Urteak ez diote solas egiteko gogoa eraman, oraindik behintzat gustatzen bait zaio. Guretzako solasaldi atsegina izan da, leku honetako zenbait gertakizun agertu bait digu. Horrela, berak dioenez, duela berrogeitamar- hirurogei urte galdu omen zen euskara herri honetan: Oroz-Betelun. Berak bazekiela dio, eta asko erregu ondoren hitz batzuk egiten ditugu gure hizkuintza zaharrean aguretxo berritsu honekin.

Eguraldiaren aldaketa dela medio, bazkal ondoko siestari amaiera eman behar izxn diogu. Trumoi hots izugariekin eta tximistekin izuturuk, erdi korrika abiatu gara Garraldarantz babesa aurkitzeko asmoz. Baina kia! Erdibidean zaparrada izugarriak harrapatu gaitu, eta ongi bustirik iritsi gara.

Ibilaldi honetan jendea eten gabe joan-etorrian dabil. Batzuk oporrak bukatu zaizkiela eta etxeratzen diren bitartean, berriak betetzen dituzte hauek utziriko hutsuneak.

Gaur lagun baten agurra dugu, etxera aldegiten baitigu. Ospatzeko, taberna atarian lagun mordoxka bildu gara dantza eta kantuz mementu atzeginak iragan ditugu. Ibilaldi honetako abeslari ospetsuena, Lutxanako mutila bat dugu, abesti guztiz bereziak dakizki eta egunez isilik egoten bada, gauez pixka bat berotuz gero, ostatuz ostatu ibiltzen da gure abeslari ofiziala bilakatuz.

UZTAILAREN 25a OSTEGUNA

Garralda benetan herri zoragarria da, eta argisentian, eguzkia jaio nahirik dabilen une honetan, are politagoa dirudi. Gaur, ibilaldiari goiz samar eman diogu hasera, luze samarra baita egin beharrezko bidaia. Martxari irteera eman bezain agudo aurrekoak izugarrizko abiadura hartzen dute, gaurko gidaria bizkorra dugu. Ordu bat ibili baino lehen, egundoko nahasketa dago gure artean. Batzuk, atzean geratu direlako, besteak, gehiegi aurreratu direlako eta gainontzekoak, zein bide jarraitu ez dakigulako. Irrintzi eta garresi pilo baten ondoren, lortu dugu berriro elkarganatzea.

Eguerdi aldera, Orbaizetako olatan gaude. Garai batean arma lantegia izandakoa hain egoera tristean ikusirik, Lertxundiren kanta zahar hura datorkit burura. Ola hauen historia, hain da bitxia. Duela bostehun urte inguru eraiki omen ziren, eta geroztik garrantzi izugarria izandako lekua da. Inguru hauetan izandako edozein gerratan, guda karlistetan adibidez, ola hauek eskuratzea zen helbururik garrantzitsuenetarikoa. Hau lortuz gero, armak eskutan

bait zeukaten. Oraindik aro hurbilagoan, Aezkoa araneko biztanleek, Estatu Espainolarekin akuerdo hau sinatu zuten: bertako mendiak Estatuaren eskuetan geratzea eta ordez, Orbaizetako langileentzako lanpostua izatea. Agian, haseran akordio hau behar bezala errespetatu izanen zen, baina azkenean, indarra duenak bere nahia egiten du, Orbaizetatarrak ez lan ez mendi, galtzak bete ipurdirekin geratu ziren. Duela laupabost urtera arte, Estatuaren eskuetan egonak dira mendi hauek, borroka gogorrak izan ondoren berriro eskuratzea lortu izan dute. Ola hauei bisitatxoa egin ondoren, berriro ibiltzeko prest gaude, nahiz eta gure artean zalantza eta iskanbila frango izan. Batzuk, bistaz joatea hobe dugula diote, bestela bidaia luze eta astunegia gerta daitekelako. Denok ez gaude ados, zeren esana bait digute Urkulo mendia benetan leku zoragarria eta zoragarria dela eta frogatu barik ez genuke aldegin nahi. Azkenean, indarren daudenak edo ausartanak Urkulurantz goaz eta besteak pistaz, Iratirantz horrela, denok kontent!

Urkulo mendian, garai batean gaztelua izandako aztarnak geratzen dira. Hain dorre zoragarria izandakoa egoera honetan ikustean negar egiteko gogua ematen dit. Dorre edo gaztelu hau Europako beste edozein lekutan balego berrikuntza lanak egin eta dotore apaindua legoke, baina hemen horretarako ez dugu dirurik. Hobe egingo luke Nafarroako Diputazioak, horrelako ekintzetan gehiago saiatuko balitz, Autopista egiten entrepresa pribatuen zorrak ordaintzen baino.

Dorre hau zein helbururekin dagoen inork ez daki ziurtasun osoarekin. Halere badira zenbait bertsio. Erromanoak eraikia dela ontzat bezala ematen da, baina ondoko zehaztasun hauetan dira ez adostasunak. Batzuk, gudaren batean hildako soldaduen hilerria izan daitekela dioten bitartean, besteak, erromanoek eraikiko bidea hurbildik pasatzen denez, dorrean gauez zerbait ikusgarria jarri eta urrutitik zetozenentzako gidagarri gisa serbi zetzan erabiltzen zela diote. Urrutitik ikus daitekela behintzat egia da, zeren, mendi horretatik, Mendaur eta Larun mendiak ikusi bait genituen.

Bidai hau aurreratzeagatik ia ia erre-kiskaldu gera. Eguzkiak indar eta astuntasun beldurgarriarekin jotzen duen bitartean, gu egarriz itotzen, iturririk bilatu ezinean gabiltza. Gidaria ere kezkaturik daukagu, iturri gehienak legortuak bait daude. Baina Africa-ko basamortuan ez gaudenez desiratutako iturri freskua aurkitu dugu azkenean.

Iratiko ohianara iristerakoan iluntzen ari du. Halere, bustialdi atsegingarria hartu barik ez dugu gelditu nahi izan, beste bustialdia hartzeko arriskuan egon arren, zerua goibeltsu eta ilun, galerna erauntsi izugarria bat mehatxatzen ari baitu. Azkenean ez du hainbeste euririk egin, enbata idorra gertatu baita, dena dela geure umore ona eta lasaitasuna mozteko nahikoa izan da, eta lo egitera behartu gaitu.

UZTAILAREN 26a OSTIRALA.

Irati mendian nagoela, arbasoek datozkit burura. Duela berrogeitamar urte inguru gure herrietako hainbat gazte mendi hauetan lanean ihardunak izan bait dira. Etxean, hamaika aldiz izan dut hemengo zenbait gertaera bitxi entzuteko aukera. Nerekiko pentsatzen dut: nola ariko ote ziren lanean? aizkoraz, arpanaz eta mando garraioz, ez zitzaien nahi orduko iraganen eguna!

Gaur bisitari bezala hemen nago eta galdemodu bat burutan: garai haietan edo orain bizi ote gara hobeki? pentsakizun hau azaldu diot dendako lagunei eta orduerdi luzeko eztabaida izan dugu, gisa guztietako arrazoi eta iritziak sortuz. Ni neronek badut gai honi buruz iritzi pertsonala, baina hemen azaltzea luzegia gerta liteke. Beste baterako utzi beharko dugu!

Gaurko eguna Irati ohian zoragarri hau bisitatzen pasatu dugu. Urtegiri itzuli osoa eman ondoren hain ura gutti aurkitzeak harritzen gaitu.

Iratiko basoa, Europako pagadirik haundiena da. Egurraren kalitateari eta lerdentasunari bagagozkio, onena bezala onarturik dago. Hala ere, oraindik zati bat, Estatuaren eskuetan dago. Orain artean ohiana nahiko ongi dago, baina berehala sor litezke arazo larriak. Duela gutti arte, alderdi hau eskuragaitza zen. Oinez iritsi behar zen. Gaur egun, Orbaizetatik datorren pistari Otsagikoa erantsi diote eta ondorio onik ez ote duen ekarriko beldur gara. Hasteko, izugarrizko pista zarra eraikitzen ari dira ohianean zehar, basoaren oreka eta politasuna apurtuz. Ondorioa, egur gehiago ateratzea izanen da ziurazki.

Gaur, eguzkia ikusteko aukerarik ez dugu eduki, lainoak mendi tarte hauetan erantsirik bezala geratu baitira. Otsagian izan ziren batzuk beheran eguraldi oskarbia dagoela esan digute eta mementu batez inbidia sentitu dugu.

Gaur, berandu oheratzeko asmoa dugu eta, pago egur lehorra bildu dugu. Afaltze ordurako su txinpartatsua piztua daukagu, berogarri eta denbora berean argitzeko balio digu.

Iluntzen ari duenean, euri langarra bizi samar hasi du eta une batez bildurtu gara, baina gehiago areagotu ez denez, zirak jantzi eta suaren alboan kantu eta txiste kontari, ordu atseginak pasa ditugu.

UZTAILAREN 27a LARUNBATA

Sarritan, mendi hitzak bakardadea eta urruntasuna gogora erazten digu. Oporrak prestatzeko orduan, jende gehienak ondartza bidea hartzen du, mendian ere opor atseginak pasa daitezkeela ohartu gabe. Hala ere, gero eta gehiago dira, mendirantz jotzen dutenak. Guk ere, hamar egunez, leku berri frango ezagutu ditugu, mementu atseginak iragan eta lagun berriak egiteko aukera egokia izan dugu. Dena dela, alde onari bakarrik begiratu behar ez zaionez, ibilaldi honetako alde txarrak azaltzen ahalegindu naiz.

Ibilaldi honetara, gehienok egunkarian azaldutako iragarkia zela medio izena eman genuen. Plagintzak hain bat eginkizun interesgarri bazekarren, hots: Eskualdeko okupazio militarraren salhaketa, euskararen errebindikazioa, mugaren aurkako zenbait ekintza burutzea, naturak jasaten ari duen degradazioa aztertzea, etab... Ez dut esanen ekintza horiek ez direla aurrera eraman, gezurra bait litzateke. Baina akats batzuk egon dira ene ustetan eta bi azaldu nahi nituzke: euskararen erabilera murritza eta mugaren aurkako ekintza eza.

Iratitik irten eta Otsagi dugu gaur helmugatzat. Bi egun Iratin iragan eta, herrira iristeko gogoa daukagu. Bestalde Otsagin jaiak ospatzen ari dira eta gauean besta egiteko asmoa dugu. Egun hauetan jasan ditugun egarriak ahantzi nahi ditugu, bederen gau batez. Pentsakizun hauetaz aparte, beste hau: bihar etxeratu behar dudala.

Otsagin, Kintoen besta ospatzen ari dira, anaikortasun eta giro atseginean. Une batez pentsatu dut anaikortasun hori azalekoa ez ote den, ''guardia civil'' modura armaz hortzetaraino beterik plazan bazter batean patxadatxu eta solasti ikusten ditudanean. Gero enteratu nintzen, gazte talde bat atxilotu zutela, ''alde hemendik'' ohiukatzeagatik.

Gertaera guztia bukaera izaten dute, Eta honi ere iritxi zaio berea. Hasieran ezagunik ez banuen ere eta bildur apur bat sentitu, orain egin ditudan lagunak uztean pena sentitzen dut.

Egunkaritxo honi ere bukaera eman behar zaionez, hortara noa berehala. Bakarrik esanen dizut irakurle, askeneraino iritxi bazara, ez dela gutti.

Edozein liburu mardul irakurtzeari ekin diezaiokezu, askoz guttiago aspertuko baitzara.

Assura.

NEGUKO DENBORALDIA

Herrietako festak amaitu dira, udako berotasunak joanak dira eta behar bada azkeneko hego haizeak pixka bat arroturik nere karresia botatzera noa (hego haizeak zabalduko duen ustetan edo...)

Negua badatorrela. Redios!!!

Hi zoraturik hago. Pentsatuko du norbaitek.

Zoraturik, zoraturik ez dakit baina ez duk txantxetako gauza.

Urtean zehar ditugun harreman arazoak, behar bada, larriagoak azaltzen zaizkigu urteko garai honetan.

Eguraldi txarrak, elurra, kazkabarra... eta abar..., ezinezkoa egiten dute kaleko giroa eta hor sortzen dituk arazoak.

Nora joanen gaituk gaur?

Ba... goazen Lesakara pote batzuk hartzera.

Pote bat eta beste bat... eta orain zer?

...hemen ez zegok aukerarik.

Azkenean denok Bordatxon amaitu behar. Han ere lehendabizi, ostatuan «precalentamiento»a egin eta gero poliki-poliki, muturra ederki beroturik pistara.

Barrikada isildu eta Benito Lertxundi entzuten da... A ze mugimendua hi!

Gehien gehienek berriro ere ostatura «bitaminak» hartzera eta bertze banaka batzuk hantxe, heldu lagunei eta tinko, abesti bat, beste bat... gehixeago animatu... nola duzu izena?... nik Pili eta zuk... nik Joxe Luis... goazen zerbait hartzera... bueno... gin kas bat eta kalimotxo bat... 400 pzta.... alua! ederki kobratzen ditek. Eseriko gera... bueno... muxu bat... oso polita zera. Bai... zu ere. Zure laztanak atsegin zaizkit... ji ji ji... non bizi zara... Lesakan... goazen goxo goxo egotera. Bai baina gurasoekin bizi naiz eta ez didate uzten lagunekin joatea. Aah nik ere roilo berdina... bueno kotxera joanen gara... bale!

Hi Pello, utzi iezaidak kotxea ligatu diat eta.

To, to giltzak.

Jo zein inkomodo... bai eserleku hauek ez dira atzera botatzen... ixo jendea heldu da.

Bueno hemen ez dago egoterik, ni banoa etxera... Agur... agur...

Eta honela inolako mediorik gabe, gure harremanak (sexualak barne) benetan frustanteak izaten dira eta azkenean droga eta alkohola bide bakarrera bultzaturik aurkitzen gera eta gero etortzen dira kritikak.

Drogazalè batzuk zarete¡

Ez duzue deus egiten!

Mozkor batzuk zarete!

Eh, hi lasai, hori dena zuen KAKA ZAHARRA duk, denon KAKA ZAHARRA eta orain ez ezkutatu.

Gaztedi osasuntsua, sanoa eta idekia nahi badugu, hortarako medioak ezin ukatu.

Eta gehien batean gure proiektu kulturalei (gaztetxeak, aldizkariak, irratiak etab.) laguntza eskini beharrean ez al zarete ittotzera saiatzen instituzio gehientsuenak? Hori subersiboa duk hi noski!

Etxeak alogatzea ere ukatu zaigu, hortarako ere lehen mailako bizilaguna izan behar (maisua, medikua...) bestela hobe hutsak, usteltzera uztea.

GURE DENBORA LIBREA OSTATUAN EDO DISKOTEKAN BAKARRA PASATU DEZAKEGU ETA GERO HOR DITUK ONDORIOAK.

TO !!! KAKA ZAHARRA !!!

Aupaton

OSASUN MUNDURA HURBILTZEN HASTEKO URRATSAK





Elizondoko eskola profesionalean, herri hauetako mediku, erizain eta farmazeutiko gehientsuenak (albaiterorik ez zen azaldu) bildu eta ikastaro bat egiten aritu dira. Egia erran, beti iruditu izan zaigu sanitario hauek denen berri bazekitela, tarteka libururen bat kontsultatzen zutela baina hor bakarka eta misteriozko ingurunean imajinatzen genituen. Horrelako imajina baten aurrean, herritarrak bildurtuak joan izan gara heuren kontsultetara, sanitarioek berriz saiatu izan dira nolabaiteko urruntasun hori mantentzen heuren jakinduria edo «jakinduri eza» dela medio. Aunitzetan, hitz eta solas zein baino zein arrarogoak erabiliz, eritasunen berri eman edo ta erakutsi beharrean, botika eta menpekotasuna besterik ez digute sortu. Giroa, sanitario eta herritarren artekoa, maila aunitzetan kutsatua dago eta horri heldu eta buelta eman behar zaiola iruditzen zaigu.

Baina nonbait, oraingoan sanitario hauei tokatu zaie heuren leize zulotik ateratzea eta taldean ikasten hastea. Zer ikasi ote dute? Esaera baten arauera, zenbait eta gehiago jakin orduan eta gutxiago dakitela ohartzen hasi dira?

Ikastaro hau erran bezala, mediku, erizain, albaitero eta farmazeutikoentzat egin da; nolabait ere heuren artean osasunaren ideia sakondu eta beste fokatze berri bat bultzatzeko eta aldi berean talde lana egiten hasteko.

Ikastaroaren zehar honelako gaiak ikutu dira:

- Zer da osasuna?
- Zer da osasun publikoa eta komunitarioa?
- Zeintzuk dira osasun publikoaren funtzioak?
- Zer da bizi-maila eta zer osasun-maila?
- Zeintzuk dira herrialde honetan osasun-arazo larrinak?
- Zein osasun sistemak daude?
- Nola egiten da lana? Zein baliabidekin?
- Zein funtzio ditu lehen mailako osasun-atentzioak?
- Lana nola planifikatu eta programatu behar da?
- Zer da komunitate bateko osasun-diagnostikoa eta nola egiten da?
- Zertan, nola eta zergatik da garrantzizkoa Herriak parte hartzea?
- Zer da osasun-zentrua? Zer, lan taldea eta nola lan egin behar da komunitatea osasunetaz arduratu eta errespontsabilizatzeko?
- Zein garrantzi handia du sanitarioek herriaren izaera eta kultura ezagutzea eta errespetatzea, herriko hizkuntza mintzatzea, bertakoa, herritarrengana hurbiltzeko eta benetako osasun-ekintzak aurrera eramateko?
- Osasuna eta politika, osasunaren eta ideologiaren arteko harremanak.

Eta abar.

Beraz, sanitario hauek osasuna beste ikuspuntu batetatik begiratzen hasi behar izan dute. Orain artean, eria eta bere eritasuna sendatzea besterik ez bait zen egiten; tarteka eta batzuk eri horiei erakusten zioten bere eritasunen berri, nola hobeki zaindu edo sendatzeko zein bide jarraitu behar zuten, baina ezer gutxi eginta osasuna bizkortzeko eta zaintzeko. Osasuna bizkortu? Osasuna zaindu? Zeinen lana da hori? Neurri handi batean sanitarioena baina beste neurri handian pertsona bakoitzarena, herritarrena, herri taldeena, herrian agintea dutenena edota poterea dutenena.

Zeren eta osasunean mantentzeko etxe bizitza garbia eta egokia behar bait dugu; lana izan eta neurri egokian egin, denbora librea izan, lan-badintza egokiak, arriskurik gabeak; higienea zaindu, edateko ura potablea izan, komunetako urak eta abar tratatuak izan, zaborrakin ere gauza bera; elikadura orekatua izan; ohitura kaltegarriak (edaria, tabakoa, sobera jatea eta abar) aldatzen hastea; kultura aberastea, eskolara joatea, alfabetatua izatea; sexualitate sanoa eta bildurrik gabekoan bizitzea, harremanak



izatea eta bakoitzak bere burua alai ikustea eta ingurukoena ere hala izatea garrantzitsua da osasunean egoteko.

Hau jakin ondoren, aski dugu ikustea gure ingurunea, zertan gara gu osansuntsuak? nola bizi dira herri hauetako zaharrak? nola haur jaio berriak? Haurdun gelditzen denean emakume bat berak nahita al da? Zein mundutara heldu da jaio berri hori? Maitasun giroan bilduko ote da? Zein eritasun dela medio hiltzen da jendea? Zein eritasunengatik joaten da jendea medikuarengana?

Beraz, komunitatean zein arazo dauden ikusi ondoren atakatu egin beharko ditugu.

Osasun mailan egin behar diren ekintzak hiru motatakoak izan behar dute:

1. Bizkortze mailakoak, hau da pertsona bakoitzak, familiak eta komunitateak osasun maila hobea eta osasuntsuagoan egon daitezen egin behar direnak.

2. Ohartaraztekoak, hau da eritasuna sortu baino lehenago zein neurri hartu behar diren jakitea eta aurrera eramatea.

3. Zuzpertzekoa, hau da behin erituz gero, sendatzea eta gizartean barneratu eta parte hartzen laguntzea.

Osasun-bide honetatik joateko, herrialde bakoitzean osasun-zentruak egon beharko dute eta ez bakarrik eriei kasu egiteko baizik eta sanoekin ere harremanak izateko. Zentru horrek komunitatearen barnean lan egin behar du, eritasuna non sortzen den ikusiz eta neurriak hartuz programak egin. Lan honetan herriak ere parte hartu behar du. Hau da, herritarra bakoitzak osasunari dagokion erresponsabilitatea hartuz, eta noski, hortarako osasuna zer den jakin beharko du. Hain zuzen ere, hementxe dago sanitarioen egin behar garrantzitsuenetako bat: herria, herritar bakoitza, komunitatea, jakinen gainean paratzea eta horrela sanitarioekin batera osasunetaz arduratzea.

A.Z.

IZOKI ETA SEGAPOTO



Herri haunditik idazten duenak urruntasunak tartean jartzen dion kristaletik ikustera behartua dago, gehienetan, bere herri ttikia. Edo ametsaren leihotik.

Kronika hau hasi nuenean, ordea, horko edozein ostatutako zerbezaren zapore mikatza sumatzen nuen itxekia aho barrenean. Bestak akabatu berriak eta zenbait gauetako kiliken ondorioa oraindik hezur-haragitan. Urtero alkoholak eta astro eta jainko guzien euriak mozkortzen duten herria: Beran.

Baina pasatua da desmadratze garaia eta berarekin batera alde egin nuen nik ere. Aprobetxatu nahi nuke hala ere joan-etorria, ikusirikoak ausnartu ondotik zerbait komentagarri ateri litekeela pentsatuz.

Kontua da Bidasoa aldeko paraje horretan arrain koxkor bat agertu zaigula, abisurik eman gabe: IZOKI Irratia, eta horren gainean hizpidea sortu. Herriko gazte konformagaitzak, sekulako sasoia duten gazte horiek, izan dira tamaina horretako atrebentzia izan dutenak. Berako jendearen hartu-emanak posibilitatzeko ez zitzaizkien zubi guztiak aski iruditzen, nonbait, eta heurek antolatu dute inolako trabarik gabe herritarrak lotzen ahalko dituen kable ikustezinak. Champagne denontzat, erronda hau nere kontura!.

Baina, gauzak nola diren, erne dabil hemen jendea, asuntoa patentatu baino lehen konpetentzia atera zaie. Bertze talde bat, bandera ta guzi. Helburu beraren alde batailatzeko prest. Irratia montatzeko intentzioarekin, alegia. Egia erran, eta barkatuko nau gaizki ari naizela pentsatzen badu zeharka begiratzen duen horrek, ez dakit, ez dut ikasi, nor izan den ideia lehenbiziko plazaratu zuena: arestiko IZOKIA eta oraingo SEGAPOTOA.

« Ez diagu gisa beretsuko irrati bana egin beharko toki berean» Erran omen dute zenbaitek bi aldeetatik, ezpatak eta ezkutuak airean elkarri erakutsiz. Baina, iduri duenez, ez dira elkarrekin moldatu eta bi emisora berri egin gogo dituzte gure bihotzeko herri berde (batzutan - egi-)an.

Hizkuntz aukera izan omen da bateraketa galerazi duen koxka. Hau da, euskaraz, erdaraz, edo bietan emititzean dago akordio faltaren funtsa. Ez da , egia erran, arinki eta axaletik garbitu litekeen saltsa. Eta alde horretatik akaso mesedegarriak izanen dira eginiko solasak, eztabaida, batzar-bilerak,: horrek neurri batean adierazten duelako gure egoera linguistiko delikatuarekiko atentzio eta kezka. Nola nahi ere, ezintasunez, borontate faltaz, edo..., bakoitxa bere alde. (Ez badira elkarrenganatu TTIPI TTAPA hau kaleratu orduko).

Eta erreka berera joatera kondenatuak diren ur ttanttak izaki. Niri hala iduritzen behinik behin. Batera joan beharko luketenak. Partiketa honek ez ote du idanrrak ahultzea ondorio? Berez nahiko exkax ibilki garenak exkaxagotzea?

Azken finean herri berean sortu diren bi iturri dira ta. Arrontean berdinak ez izanagatik, biak lur harritsu honetan bidea egiteko ilusio berarekin jaio direnak.

Enfin, zertarako luza, ez dut, bistan denez, SEGAPOTO horrek IZOKIa irenstea baino desio. Edo, kontrako aldera, IZOKIaren bihotzetik zintzilik SEGAPOTOa ikusi nahi.

Geroak erranen du zertan akabatzen den hau. Kronista honek hustu berri duen zerbeza botilaren barrenean sarturik bidaltzen du naufrago mentsajea herri haunditik herri ttikira: irrati bakarra, bi irrati,.. euskara hutsean, bietan,.. nola edo hala; baina ez dadila izan udako sargoriak eta egun berexi horietako haize eroak sortutako espejismoa.

IZOKI ETA SEGAPOTO ETZAZUELA EGIN POTO!!!.

KAPI



EUSKADIN GAUR

● Estatu espainola eta frantsesa aspalditik elkar lanean ari dira. Baina, azken boladan publikoki eta inongo lotsarik gabe. Lankidetasun honen puntu nabarmenenak hauexek dira: polizien arteko elkarlana, Gal-ek mogitzeko orduan duen erreztasuna, deportazioak eta extradizioak egitea.

Baina, lankidetasun honek ere baditu bere ahuleriak. Batetik, bi gobernu hauek politika desberdina eraman nahi dute eta joku berean duade. PSOE, PSF eta Gal-ek errefuxiatuen aurkako politika egin dute eta noski, frantsez administrazioa zuzen zuzenean «guda zikina» deritzen denarekin lotua gelditu da. Bestetik, Askapen Nazionalaren Mogimendua ere hor dago bere oinarri sendoekin eta gobernu hauen helburu politikoei kontra eginez eta epe laburrean bederen eragotziz. Horregatik, bi gobernu hauek, elkarlaguntza horretan ez dute azken ondoriotaraino heldu nahi eta noizean behin itxura hori aldatzeko ekintza desberdinak egin behar izan ditu. Esate baterako, Arteaga askatzea eta extradizio politikoaren eragozpena aipa daitezke.

Politika hau, ordezkatua izan dadin, lege berriak sortzen dituzte. Horrela, errefuxiatuen kontrako ekintzak Barne Ministraritzapean paratzen dituzte, hain zuzen ere lankidetasunean jarraitzeko eta eskubide guztiak izateko.

● PNV eta PSOEn arteko «Pacto de legislatura» ere aztertzekoa da. Paktu honetan elementu desberdinek ikus ahal ditugu eta gero ondorioak ongi neurtu.

Batetik, mementua, zein unetan egiten den ikustea, hau da PNVren krisi sakonaren barnean.

Bestetik, paktoaren edukia oraindik osorik argitu gabea dago.

Paktoaren atal ekonomikoak urrats kualitatibo bat suposatzen dute. Betidanik, PNVek izan ditu kontraesanak, hau da: PNVren oinarri ideologikoak, nazionalistak dira baina, aldi berean, bere burua estatu mailako projektu ekonomikoan interesatua dago. Beraz, paktu honetan, konpromezua ez litzateke laguntza finantziero eta politikoak soilik geratuko, baizik eta hau ere onartu beharko litzateke: euskal ekonomia eta espainol ekonomia estuki loturik daudela eta tartean estatu mailako merkatal ekonomi bakarra besterik ez dela ereiki behar.



● Instituzionalki, PNVk ongi daki Estatutoak gailurra jo duela eta teorian nazionalistaren elementu batzuk Gernikako Estatuaren lorpenen salaketa eskatzen dutela, eta beraz, egoera berri honetara egokitu behar duela bere burua.

Gauzak horrela izanik, bere joku instituzionalean eta ideologikoan birmoldaketak egiten saiatzen da.

Paktu honek, elektoral mailan, PSOE indartzen laguntzen du zeren eta «gobernu Vascongado»an egon gabe, Gobernuko Partidua bihurtzea baita.

Horretaz gain, paktu honek, borroka psikologikoaren era berriak dakartza: Askapen Mugimenduaren isolamendua lortu nahi du, gehiengoa instituzionala eta gutxiengoa erradikala elkarren kontra jartzen saiatuz eta era berean errepresio mailak gogortuz, «Pacto de Legislatura» delako honek, irauten duen bitartean

● PNVren krisisa eta eginbeharrari dagokionez, PNVen historikoki bi linea elkarren ondoan bizi izan direla esan dezakegu.

Bata, nazionalismo burgesaren hildotik doana, (Ormaza, buru delarik), eta bestea publikoki 1976eko Leioako «Pacto con la Corona» delakoan oinarritzen duena bere estrategia. Hau da, esperientzia foralaren bitartez ikusten duena, honek euskal autonomiarentzat irten bide negoziatua ekarriko du, botere faktikoak gehiegi izutu gabe.

1977etik honera, nahiz eta aparatoa azken sektore honen kontrolpean egon (Arzallus, buru delarik), bien arteko elkar bizitzarako politika nagusitzen ari da; aparatua erabiltzen da baina

bertako elementu nazionalistenak erditik kentzeko, eta hau barru barrutik, inolako eten traumatikorik gabe izateko. Lehenengo mementu batetan sabinianoak, bermeotarrak eta Euskotarrak kaleratzen dituzte, eta bigarren fase batetan Nafarroako alderdikoak.

Kaleratze politiko hau, praktikan gauzatzean Arzallusek helburua hau zuen: alderdia sendotzea, baina duen itxura zabala eta nazionalista apurtu gabe, hau baita hautaleak mantentzeko eta hedatzeko bide bakarra.

Garaikoetxearen krisisa gertatzen denean, kontraesan hauek nabarmen agertzen dira, eta sektore nazionalistenetan dagoen haserrea Garaikoetxeak bereganatzen du, nahiz eta benetan helburu estrategiko-politikoetan desberdintasun handirik ez egon.

Mementu hauetan, elkarren artean ez zirikatzearen politika edo paktua mantentzen dute, GBBren erabakiak (asanblada nazionalaren agindu guztiak onartzearen erabakiak, hain zuzen ere), adierazten duenez. Eta honek ez du esan nahi kontraesan hauek desagertu direnik. Izan ere, ez zuten beste irten biderik: hori onartu edo kanpora geratu.

Beraz, PNVek ez dio uko egin nahi bere itxura zabal eta bateratzaileari eta horregatik, epe laburrean ezin izango du Paktua azken ondoriotaraino bete (Arzallus, Insausti, Ibarzabal, eta abarrek). Hau da ezin izango du agertu Erreformaren Gestore zuzen eta bakarra bezala Euskadin eta horixe da Botere Faktikoen konfidantza emango liokeena.

Baina, azken batean, denbora aurrera doan heinean, Estatuko arrazoiak (ekonomi interesak) arrazoi elektoralisten gainetik nagusituko dira. Edo nagusituta daude.

J. Etxebeltzea.

BAZTAN-BIDASOA-MALDA ERREKAKO EKONOMIA (1)

Gauza gehien gehienen azpian ekonomia omen dago, bizi geran gizarte hontan. Ekonomia da herrien harat-honaten ardatza, ekonomiak mugitzen ditu historiaren hari naguesienak. Nola ulertu non gauden eta nora goazen, ekonomikoki non gauden eta nora goazen ulertu gabe?

Zaila da, ordea, ekonomia ulertzea; kosta egiten zaigu mundu hortan pixko bat bederen sartu eta bazterrak astintzea. Astuna da gaia, pisua, zaila. Baina axola haundikoa.

Azterketa eta ikerlan pilo bat egin ohi da gure herritan eta gure herritaz: bere historiataz, kondaira, ohitura, bitxikeri, gauza zahar eta berritaz, etxe, ipuin, kontu, esaera eta abarretaz. TTIPI-TTAPA aldizkariak hamaika histori jaso eta kontatu dizkigu hortaz. Baina oso jende gutxi ausartu da herri hoien ekonomia aztertzera; ekonomikoki zertan dagoen eta nora doaien, zein hari mugitzen ari diren ikertzera. Zenbaitzuk badute ordea hortarako eskolarik eta gogorik aski.

Irunen kaleratzen den "Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkariak" (Boletin de Estudios del Bidasoa) delakoak, gure lurralde honen azterketa sozio-ekonomiko bat argitaratzen zuen orain berriro. Lanaren izenburua: "El desarrollo economico en la Cuenca del Bidasoa", erdaraz egina da, eta Fernando Merino Rodriguez da bere egilea.

Alegia, horrelako lan bat egiterakoan, kontzeptu berexi aunitz erabiltzen dira. Eta kontzeptu, hitz berri horiek zailak egiten zaizkigu, ulerkaitzak ekonomiaz deusere ez dakigunontzat. Baina oso interesgarria iduritzen zait lan hori ulertzen saiatzea.

Zorionez egileak, Fernando Merinok badu apaltasun aski bere lana guk ulertu dezakegun hitzetan kontatzeko. Horixe eskatu diogu berari, eta bera oso prest. Zera galdetzen genion Fernandori, adibidez:

-Nekazaritzatik industrigintzara pasa gara Bidasoa inguruko herriok. Baina gaur bertan, zenbat jende bizi da industri batean lan eginaz eta zenbat baserri lanetik?

-Eta nola ikusten duzu hemendik urte batzutara?

-Ekonomista bezala, zer diozu: hobeto edo okerrago biziko gara hemendik hamar bat urtetara Bidasoa inguru hontan?. Ze etorkizun ikusten diozu?.

-Zein arrisku dauzka etorkizuna horrek? Nora joango da inguru hontako industrigintza Europan sartzean? Zer gertatuko da baserriekin? Badu etorkizunik hemengo baserriak?

-Herrien arteko Mankomunitate ekonomiko bat proposatzen al duzu: zertaz, nolakoa, zertarako?

Fernando Merino, ekonomilari doktorea, Lesakan lan egin eta Hondarrabian bizi den gizon apal, eder eta azkar hau mintzatuko zaigu hurrengo TTIPI-TTAPAn.

BA AL DAKIZU NORA DOAIEN ZURE HERRIA, BEHETIK GOITI ALA GOITIK BEHERA¿

Badakizu, adibidez, jende gehiago ala gutxiago bizi zeraten, biztanle kopurua igo edo jeitsi egin den azkeneko 80 edo 100 urteotan?

Begira kasu batzuk:

HERRIA	BIZILAGUNAK 1900.URTEAN	BIZILAGUNAK 1981.URTEAN	BIZILAGUN GEHIAGO ALA GUTXIAGO?
ARANTZA	1.088	723	365 gutxiago
LESAKA	2.304	2.943	639 gehiago
BERA	2.710	3.454	744 gehiago
SUNBILLA	1.034	657	377 gutxiago
ITUREN	638	444	194 gutxiago
SALDIAS	366	155	211 gutxiago
BAZTAN	9.782	7.983	1.799 gutxiago



Ba aldaketa hauek batez ere arrazoin ekonomikoengatik gertatu dira.

Nora doaie erreka hau ekonomi arloan? Fernando Merinok lan eder bat egin du hortaz, eta berarekin hitzegingo dugu urrengo TTIPI-TTAPA zenbakian.

Urrengo TTIPI-TTAPAn ere: Arantza, Etxalar, Igantzi, Lesaka eta Bera (Bortz-Herriak); Sunbilla, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Zubieta, Erasun, Ezkurra, Donamaria, Oitz, Labaien, Saldias eta Urrotz (Malda-Erreka); Bertiz-Arana eta Baztango bizilagunen datu zehatzak azalduko ditugu taula batean; azkeneko ehun eta gehiago urteotan zer nolako aldaketak izan dituen biztanle kopurutan, hamar urtetik hamar urtetara, Merinok egin duen lan horri jarraituz.

ANTTON.

HENDAIA, SARA, EDO ASKAIN... FRANTZIAN OTE DAUDE?

Hemen komentatu behar dudan puntu hau ergalkeria idurituko zaio baten bati, baina badu bere garrantzia, nere ustetan.

Berako bestatan nenbilen, larunbata gauez, eta ikastolaren ostatuan, erraten dit batek:

-Frantses jende aunitz zebilak gaur Berako bestatan.

-Frantsez jendea, erran nion nik. Nongoak dituk ba neska-mutil horiek?

-Ba, Askain, Sara... aldekoak.

-A, eta horiek frantsesak al dituk?. Askain eta Sara herriak Frantzian al zeudek?

Txorrada bat iduritu zitzaion nere puntualizazioa. Nahiz eta nerekin hizketan ari zen mutil hori ezker abertzale ingurukoa izan.

Euskadiko Marmitako Txapelketa zegoen Lesakan, eta bertze batekin solasean, lagun horrek erraten du:

-Lehengo urtean, Frantzian egin omen huan txapelketa hau bera.

-Frantzian? Nola egingo da Frantzian Esukadiko Marmitako Txapelketa?.

-Bueno, hi... Hendaian egin huan... kaka hiretzat. Ulertzen didak ederki.

Eta gizona abertzale sutsua hau ere, pikatu egin zitzaidan.

Normaltzat hartu dugu muga bazter hontan "frantsesetaz" hitzegitea. Eta, honela inungo lotsarik gabe botatzen dugu, zapla: "Bihar Frantzira noaie aba konpontzera, Sarara"; edo, "Frantzian egon gaituk hondartzan, Hendaian".

Inungo kontzientziarik ez duen bati hori aditzea ez da pekatu haundia izanen, baina bere burua abertzaletaz hartzen duen bati aditzea, horrek bere garrantzia baduela uste dut. Ohitura horren azpian joko txiki bat dago: onartzea "de facto" mugaz bertze aldeko guztia Francia dela, eta mugaz honat España.

Eta gainera zerbait erraten badiozu hortaz, ergelkeria iduritzen zaio. Eta niri ez zait hain ergelkeria iduritzen. Edo ia ukatu egin behar al dugu ZAZPI laguneko famili bat dela Euskal-Herria?. "Zazpiak bat" dioen harmarri eder batek egon-gelan zintzilikatzeko besterik ez al du balio?.

Etsaien jokoan erortzea litzateke hori.

GIRO BELTZA

Neska gazte bat hamar pusketan
atzo eginun berezi,
eta ikaragarri onak zirala
ikusi nitun bederatzi. (birritan)

Nere bihotzan horma egin zan
hamargarrena ikusirik,
dena ustela agertu baizan
inola ez sendaturik. (birritan)

Ustel pusketa alderotikan,
bertan eginun ikusi,
bihotza baizan, baita mingaina,
nere eskutan ihesi. (birritan)

Bihotzak zitun harri kozkorrak,
mingain gezurrez betea,
ez naiz harritzen, batek bakarrak
bederatzi izorratzea. (birritan)

Gizonak pentsa egin beharra
garai datorren orduan,
horrelako bat lagun hartuta,
nor bizi leiken pakean (birritan)



Bihotz baten parean
haizepel garbia
nere egal artean
bizi t'erdia.

Ez ditut ezagutzen
lur horren arteak
baina aisa maitatzen
hango egoteak.

Lorerik ez da falta
ez hosto belarrik
larrean hasi eta
ez hartu bestarik.

Hutsuneak, bai baina
argia bestetik
urratsa eman aina
goaz gure bidetik.



Adiskidea!
Gorputzaren zati bakoitza
bere izenez deitzen hasi eta
zera erran behar
bihotzean zerbait dudala.

Tokiak lekurik
baldin eta izanen balu
eta
zu eta ni
eta
bion artean.
hurbiltasuna bezain bat
urruntasunak agindu,
zera erran behar
zure hurbiltasunetik
urrun nabilela.
Orainak geroari
egunero deitzen badio
eta geroa etortzean
zure ateak nerearen parean
edo alderantziz,
nere ateak zurearen parean
zabaltzen ez badira
zera erran behar
ez dagoela agurrik ere.
Baina,
nik edo zuk
edo,
zuk edo nik
dei egitean
maitatzeari bidea eskatu eta
solas faltak
infinito eta erdia
ibiltzen badu
zergatik ez sinetsi
infinitoan beste erdia
infinitoa dela
edo,
maitasunaren beste erdia
hartu eta eman
eman eta hartu dela
edota,
biziaren erdia
ez garela zu eta ni
zu edo ni bakarrik.
Eta heriotzaren erdia
(heriotzak erdirik izanen balu)
ez dela erdihilik egotea
bizi geran artean?



BERTSOTAN

Oraingo honetan bi bertsolari haundi ekarri ditugu, Xalbador eta Arozamena lesakarra. 1968ko Otsailan, ehun mila pezetako sariketa jokatu zen Donostiako Anoeta pilota-plazan. Hor berexi zituzten bi bertsolari hauek elkarrekin kantatzeko.

Gaia ematerakoan honela esan zieten.

—Arozamena hasi dadin eta Xalbador segitu: nork gezur handiagoak esan. Hiruna bertso.

. Arozamena

Gure barrenak sarritan hola
dauka joera ergela
eta gezurra esan beharra
hauxe neretzat motela.
Edozeinek gaur ez du miatzen
txit Xalbadorren gibela
esan didate Prantzialdian
kantari ai zeradela.

Arozamena

Gezurra behin-ere baldin badu
mundu hontan indarrikan,
entzuten daudenak entzun behar
didate neri ederrikan.
Nere denboran ez det eduki
honen besteko penikan:
bertso kantari ari naiz-eta
hemen bakar-bakarrikan.

Arozamena

Beste gauz bat ere esateko
hementxe neukan aztuta,
eta jendeari esango diot
bihotzetikan poztutz.
Gaur goizean ikusi denakin
nago ni bai arrituta:
kanpoan dantzan hor ikusi det
atzo hildakoa piztutz.

Xalbador

Horra, jaun-andre maitagarriak
gure gezurren argiak;
zeinek handiagoa botatzen
hasiak gera gu biak.
Ez det hauzotik jakindua hau,
etxean ditut agiriak:
goizean hogei bat litro esne
eman ttu gure idiak.

Xalbador

Bira haundia emana diot
beti oinez munduari,
eta hor gaindi ikusia dut
nik miraria ugari.
Goizean ere etxetik egon
nahiz begira arbolari:
hamar arraintxo haren adarrean
eni zaudezin kantari.

Xalbador

Edari ona maitatzen det nik,
begikoa det kupela;
ta denek jakingo dezute ba
andrea ere badutela.
Horra bertze gauza bat milagro,
hau ez litaike bestela:
berandu etxean sartzen naizenean
ixilik uzten nauela.

Mikel Arotzamena, Lesakarra,

«Xalbador», Fernando Aire Erro,

KOTXE BERRIA

Joxe, mutil zintzoa bai, baina ez da oso jantzia. Azken urteotan aurreztutako diru guztiarekin kotxe berria erosi zuen.

Herrira iritsi zen eta mundu guztiari erakusten zion kotxea.

—Hori duk kotxea, Joxe! Ederra benetan! Orain erremintak behar dituk. Katu on bat behar duk.

—Nekaben! Kotxea berria eta dagoeneko arratoiak?

AITA ZUHURRA

Amezketako ikastaroan kontatu zidaten bezegoela aita zuhur-zuhur bat. Pentsa ezazue zein zuhurra zen hiltzera zihoala egun batetan familia guztia deitu zuela bere ohe ondora:

—Emazte Joxepa! Hor al zaude?

—Bai, zure ondoan nago Fermin.

—Eta Bittor, seme, hor al zaude?

—Bai, aita, hemen nago, zure ondoan.

—Eta Miren, alaba maitea, hor al zaude?

—Bai aita, hemen nago..

—Denok hemen al zaudete beraz?

—Bai, aita, hemen gaituzu.

—Eta orduan zer egiten du sukaldeko argiak piztuta?

UME BAI ITSUSIA-

Emakume bat igo da autobusera haurra besotan duela.

—Ene! —esaten du txoferrak— Hori haur itsusia! Ez dut holakorik ikusi!

Ami haserretu da eta denuntzia ˆat jarri behar diola, esaten dio. Gero inspektorea etorri da, eta emakumeak:

—Txoferra salatu behar dut, insultatu nauelako.

—Ongi dago; idatzi paper honetan zure denuntzia.

—Ezin dut, ez daukat lapitzik.

—Tori ezazu lapitza, eta papera ere bai; eta ekarri, zuk idatzi bitartean nik jasoko dizut txim inoa eta.

TTIPI-TTAPA

125 pzta.